

JUBILAU BEÇALA

EMATEN DEN PERDUNANTÇA

OSOAREN CRIDA EDO PUBLICACIONEA,

AITA SAINDU PIO, icen huntaco VII, garrenac Christau-herriari, Jubilau beçala, ematen dioen Perdunantça osoa; Franciaco Eliçari bihurtu çayon baquearen eta Erreligione catholicoa bere estatu librora ethortcearen ariaz;

ELIÇA bisitetan eguin beharco diren othoitzeguin.

*Jaun JOSEPH-JACOB LOISON, Bayonaco
Jaun Aphezpicuaren meçuz.*



BAYONAN,

CLUZEAU ANAYETAN, Jaun Aphezpicuaren eta
Aphezen Imprimaçaïlean, Orbeco carrican n° 9.





JUBILAU BEÇALA

EMATEN DEN PERDUNANTÇA

OSOAREN CRIDA EDO PUBLICACIONEA.

GU JOANNES-BAPTISTA CAPRARA, Cardinal Aphez, San onuphreren titulucoac, Milango Archaphezpicu eta Jesico Aphezpicutasuna cerbitçatcen dugunac, Aita Saindu Pio iceneco VII garrenaren eta Apostoluen Cadira Sainduco Meçu-guile edo Legat, Frances Errepublicaco lehen Consularen aldean garenac.

Franciaco Eliçari bihurtu çayon baquea, Erreligione Catholicoaren libertate oso eta traba-gabea, dire fagore ecin asqui preçatuzco batçu, ceinetaz jendaqui edo nacio distiant hau cordun baitçayo, Jainco guciz onaren ondotic, Errepublica huntaco lehen-Consul, arthatsu eta çuhurrari; hargatic ere phiztu behar dituzte gucien bihotzetan, bozcario eta eçagutçazco sentimendu bicienac, Jaun-goïco urricalmenduen aïta amultsuaren

aldera. Gure Aita Saindu Pio VII-ari, khechatua delacotz Apostoluzco ansia eta ardura handi batez, mundu herri oroco Elicentzat, eta Aita baten amodioaz sustatua Frances gucien-aldera, iduritu çayo hauc fagoratcen dituen dohaïnac bera ere fagoratcen duela, eta bera eguin-bide hertsienez cargatcen duela. Beraz, haren bihotzari hain onhets garri çayon carga hortaz descargatceco, bai eta, guciz baliosa den aurkhintça huntan, bere botuen complimendua cerutic ardietsteco, haren saindutasunac, adiaraci ondoan Francian eguin duen patu edo concordata, manatu du, eguin daitecen Roman esquer-onezco othoitz bero eta hanpurutsuenac: baita ere crida eta publicaraci Jubilau edo Perdunantça bat.

Bainan nola çucen baitcen, fagore haïn berecitie probetchu eta fruitu guehienic athera behar çutenec, bere eçagutça distianquienic seinala ceçaten, haren saindutasunac, despeditu gaitueneau meçutu gaitu crida edo adiarazteaz Jubilau bat, haren icenean eta botherez, Jaincoari esquer ahalic handienen bihurtceco bide eta parada Francesei ematecotçat hala, Aita sainduaren meçua betherceco, ya eman diotegu Jubilau barentçatco decreta, Franciaco Aphezpicu berri, lehen Consulaz icendatuac eta Apostoluen cadiraz establituac içan direnei, bakhoitzac, bere Diocesetan adiaraz deçaten amoreagatic, ongui-idurituco çayoten pontutic.

Meçu hori ematean hargatic, barneac ematen çaroçun christauec ecin probetchu handiric atheraco çutela hortic, Jaun Aphezpicuec bere Diocesac eta Eliçac, arimen onetan, arrima cetçaqueten arteraïno. Beldur guinena guerthatu da, luçatu behar içan dugunaz gueroz egun artean, Jubilau hunen camporatcea.

Bainan oraï, esquer Jaincoari, lehen Consul,

eta Aphezpicuen artha khartsuari, Diocesa guciac arsimuan eçarriac dire : ez da beraz arroçoinic Francesac guehiago gabetnac iduquitceco , salbamendua-rentçat haïn balios den dohaïn eta fagoreaz.

Hauc guciac beguietsi eta consideratu ondoan , eta gure Aïta Sainduaren egartsu handiari ihardetsecotçat , bigarren aldian , adiarazten dugu Jubilau bera. Aïta Sainduac , fidantciaz bethea Jaïnco guciz botheretsuaren urricalmenduan , Jaun-Done Petri eta Paulo Apostoluen othoïtz eta laguntcetari , ematen diote , Francian bici diren christau catholico guciei eta bakhoïtçari , perdunantça oso , bethe bat , eta bekhatu gucien barkhamendua , Jubilau urthetan , eguiten ohi den beçala , eta Eliçac costumaten dituen molde gucien arauera , baldin hogoi eta hamar egunic barna , crida eguna bera barnean delaric , Jaïncotiaqui eta debotqui ; bisitatcen badute Jaun-Aphezpicuac seinalatuco dioten Eliça , esquer-onac Jaïncoari ematen diotçotelaric erran diren fagore gucizcoentçat , khartsuqui othoïtz eguiten badute Eliça-Ama Saindua gora eta gorago altchatua dadintçat , Aita Sainduaren çorionarentçat , Consulen eta Errepublica gucico cargudun gucientçat , eta gucien buruan , Jaun Aphezpicuec seinalatuco diotçoten obrac eguiten badituzte.

Çahar , eri edo eguiazco arroçoinic , othoïtz erran direnac Eliçan eguitetic guibelatuco dituztenez beçambatean , gure Aita Saindu , icustatez eta urricalmenduz betheac , libro utzten ditu haïna hec , eguidetçaten , bere etche edo caperetan , Jaun Erretorarequin adituric ; eta ematen daroe Perdunantça , bertcei beçaïn complia eta osoa , bethetcen dituztelaric ordean , emanac çaiçcoten eguin-bideac.

Jaun Aphezpicuen artharen eta arduraren gaïnean

utzten dugu decreta apostolico hau , bere Diocesetan
 adiaraztea , eta behar beçalaco pratica eta othoïtzen
 esleitcea , arren bada Christau catholico guciec athera
 derçaten Eliçaren thresoretic , frùitu jori , ugari eta
 gaîndizcoac.

Parisen emana, gure Egontoquian, hacilaren 1. 1803.

Sinatua , J. B. CAPRARA.

*J. A. SALA , Embachadore edo Legat
 Apostolicoaren Secretarioa.*





BAYONACO JAUN APHEZPICUAREN

MANDAMENDUA,

*GURE Aïta Saïndu Pio, iceneco VII garrenac
Franciari ematen dioen Jubilauaren idequitceco.*



JOSEPH-JACOB LOISON, Jaincoaren
urricalmenduz eta Apostoluen cadira saïndua-
ren graziaz, Bayonaco Aphezpicuac ;

Bere Diocesaco Jaun aphez eta Christau guciei,
Agur eta benedicione gure Jauna baïtan.

Benedicatu dela Jaincoa eta J. C. gure Jau-
naren Aïta dena, ceï nec isuri içan baïtitu gure
gäïnera ceruetaric benedicione izpirital suerte
guciac J. Christo baïtan. Hala nola bereci içan
baïcaïtu haren baïtan, mundua eguin aïtcinetic,
içan guïntecentçat saïndu eta notha-gabeco,
haren beguietan, caritatearen bidez : eta ceï nec
aïtcinetic aldaratu içan baïcaïtu gu bere ume-
orde eguiteco J. Christoz, bere nahiac eman
dioen arauera; laudorio eta loria gueldi daquion

amorea gatic haren graciari, ceinetaz bere gogaraco eguin ičan baicaitu bere seme maitea baitan, ceinetan edireten baitugu erresquetamendua haren odolaz eta bekhatuen barkhamendua haren graciaren aberetstasunen arauera. *Ephes. 1.*

Anaya Maite-maiteac, escainia çaicu Jubilau huntan graciaren gaindidura hori. Gure Aita Sainduac eman dio Franciari, haren Eliça bidez doloratuaren goça eta consolatceco, han, landa batean beçala, ereinac diren escandalac ondotic atheratceco, gure baitan hain iraunguia den Fedearen etchea berri-berritan altchatceco, Jaïncotiartasun hain hotztua denaren phitzarazteco, estatu, adin gucietan, berthute guiriztinozcoen birlorarazteco, eta bide hortaz Francia descalabratuaren lurra erreberritceco. Christau gucien Aïtac khartsuqui bilhatcen du gure bihotzetan sor-araztea Jaïncoaren aldera amodiozco eta eçagutçazco sentimenduac, Eliçari eman dioen baque ecin asqui preçatuaren gatic, baita ceren bihurtu darocun erreligione Catholicoa bere ceremonia saïndu guciequin. Huna beraz dembora gogaracoa guretat; huna gure salbatceco egunac. Jaïnco urricalmendutsuaren bihotza çabaldua dago gu-

cientçat ; ez beraz nihorc etsi bere conversio-
neaz ; ez beça gal Jaïncoarequin baquetceco
esperantça , bekhatu ici-garrienez bethea de-
lacotz , ceren pasioneac dituen nausituac , ce-
ren aztura edo habituda çaharquitu batçuen
gathez den lothua : guciac hauts eta porrosca
detçaquegu gure indarra den J. Christo baïtan ;
harc etz çaicu egun salbamenduaren berria
adiarazten. *Ecce nunc dies salutis.* II. Cor. 6.

Gure Anaya , Maïte-maïteac , guciei , nihor
bereci gabe , mintço gaizquitçue. Helas ! nor
gare Jaïncoaren urricalmenduari mugarriric
emateco ? Ceru guciez çabalago eta hedatuago
denaz gueroz. Mintço gaizquitçue beraz çuei ,
ceï nec , mundu huntaco arno poçoatuaz hor-
dituac , gaïxtaqueria eguin baïtuçue copeta
agueri saïnduen lurrean , ahantziric han sara-
raci cintuzten Jaincozco caractera edo seina-
lea. Nolacoa ezta çuen hobena eta escandala !
Guciarequin ere , bihur çaitetzte ene gana , diot-
sue Jaun-goïcoac eta hartuco çaituztet. *Tamen
revertere ad me dicit Dominus , et ego susci-
piam te.* Jerem. 3.

Çuei mintço gaizquitçue , ceï nec , jaun done
Pauloc dioen funts-gabeco philosophiaz enga-
ñatuac , agueriqui ukhatu baïtuçue çuen arimen

noblecia, bertce bicitce baten esperantça eta beldurcundea, hitz batez bethiereco salbamen-
duaren sinhetstea. Sinhets-gogortasuneco erre-
berian erran duçue, oraico dembora çuena du-
cuela, gueroco salbamendua funts-gabeco a-
guintça bat dela, eternitatea amets bat eta aphe-
zen elhe bat, eta Evangelioco eguia ikhara-
garriac guiçonez direla asmatuac. Jan deçagun
eta edan, dugun atseguin har, gaïten balia
demboraz, ecen bihar ez gare guehiago iça-
nen. Horra, nora ohi daraman jaquintasun gue-
çurrezco baten orguïluac; erran nahi da, Jaïn-
coaren etsai den eta arimaren hilgarri den ha-
raguiaren çuhurtcia gueçurtira daramala. Eta
guero, cembat burro eta arnegu Jaïnco han-
diaren contraco! Cer mezprecio erreligionearen
eta haren ministroentçat! Cembat hirri eta bur-
la prestutasunaz eta Jaïncotiartasunaz! Ala
urrun goan baitçarete ceruco erresumatic! Gu-
cia gatic ere, itçul çaitzte, oraino muga da,
dio Jaunac, eta besoac çabalduric nago çuen-
ene-gana hartceco. *Tamèn revertere ad me.*

Çuei mintço gaizquitçue, ceï nec, gastetasun
çoro baten lehen urthetariac, pasione suhar bar-
çuei largatuac, oïn - azpicatu baituçue mila
aldiz, guiriztino eguin cintuzten Bathayo saïn

dua, eta Jaincoaren ume, Jesu-Christoren jar-
raile edo dicipulu icateac emanico eguinbi-
deac. Ez dacsaque çuen bician, baicen Jain-
coaren ahantz mendua, izpirituco barrajadura,
bici-modu desarrimuzco bat, othoïtza osoqui
utzia, haraguiusco atseguinen esclabotasun ahal-
cagarri beçaïn dohacabe bat. Eta norc daqui
ez dioçuen sinhetste eman sugue enganariari,
erran darotçuenen ez duçuela guehiago salba-
menduric Jaincoa ganic iguriquitceco. Ah, be-
guira horlacoric sinhetstetic; çuen escuetan du-
çue salbamendua, nahi duçuelaric; urricál-
menduen Jaincoac barkhatuco darotçue haren
seme maïte-maïtearen primuquide çaitelacotz.
Çatozte beraz haren gana bihotz guciaz; har-
tuko çaituzte aïta baten amultsutasunarequin.
Tamen revertere ad me.

Çuei mintço gaizquitçue, ceinac, erreligio-
nearen ceremonia batçuen estacuru eta itçala-
ren azpian, antsicabequi bici baitçarete çuen
salbamenduaren eta guiriztinozco eguin biden
gaïnean. Asqui çaitçue, sortcez dakharqueçuen
bihotz-ontasun batez ceben buruen maïtaraz;
hori da, nolazbeïtere, mundu huntan sal-
batcea, eta bethierecotz çuen buruen galtcea.
Qnac dire, aïthortcen dut, çuen guiçacarazco

berthute eta dohain munduaz ederretsiac ; ordean christauac çarete : eta cer dio christauen legue-emasleac ? *Nahi bahaiz sarthu bicitcean , beguira catcic manamenduac.* Gure baïtaric ditugun berthutec eguiten dute guiçon galant munduaren araueracoa , ordean fedeaç , caritatezco eguintzequin , eguiten du Jaincoaren araueraco guiçona. Ilkhi çaitetzte beraz , ahalic lasterrena , lokhuma gal-garri hortaric ; idec-otçue beguiac egun çuen gañean altchatcen den arguiari. Dembora du J. Christoc jasaten çaituztela ; iguriquitcen çaituzte ; barkhamenduzco egun hauc iragatera utzten baditutçue , norc daqui hea nihoiz atcemanen ditutçuen ? Ez beraz instant bat gal ; laster eguiçue besoac çabalduric dagoenaren gana ; orhoit çaitetzte Izpiritu Saïnduaren erranaz , *Jaincoa baïtan urricalmendua eta haserradura elkharri hurbil darraizcola.* Eccli. 5.

A la goço baita guretçat erratea eta çuentçat aditcea , G. A. Maïte-maïteac , urricalmenduiçan nahç duela gure arimez ! *Deus noster miseretur.* Hambat alboroto edo errebolta haïbertce farfanacione sacrilegoen ondoan , oraïno ez du ahantzi gure aïta dela eta umeac gaituela. *Quomodò miseretur pater filiorum.* Dugun be-

raz Prophetarequin oïhu eguin, ala handiac bair-
 tire, Jauna, çure beldurrean eta esperantçan
 bici direnentçat gorderic dauzcatçun eztitasu-
 nac ! Icusten duçue hitz horietan nolacoac diren
 eta nola merecitcen diren Jaun-goicoaren urri-
 calmenduac. Aldaratuac dagozca haren bel-
 duerraz eta esperantçaz bakharric uquituac di-
 renentçat. Halacoetan dacusa gucia, hequintçat
 ditu fagore guciac ; ecen haren justiciaz burlatcen
 eta bihotz-ontasunaz etsitcen dutenec idoiztat-
 cen dute eta harequin parteric ez dute. Eta he-
 men G. A. Maïte-maïteac, hemen, çuen arimez
 dugun grina eta antsia handiac hersten eta be-
 hartcen gaïtu çuei adiaraztera, alferric bilhatuco
 dugula escaïnia çaicun Jubilaueco gracia, baldin
 ez badugu gure bihotzetaric atheratcen bekha-
 tuendaco amodioa, cin-cinezco penitencia ba-
 tez. Aldaren bisitatcea, sacramenduen hantat-
 cea, barura, limosna dire, hala da, bere baïtan,
 eguintça ecin guchiago onac ; ordean, bihotza
 Jaincoa ganic urrun bada, bekhatuac han erre-
 guinatcen badu, nola, hura haïn hastio duenac,
 onets detçaque campoz eguiten diren obra ho-
 riec ? Eguia da, templuen berreguintcen lagunt-
 cea, hangó ceremonia eta bestetaco cerbeït hor-
 ritcea, gauça beharrac caïzquigu, Jaunaren cer-

bitçuac, dembora luce batez jasan duen escasaren orde; ordean campo horiez contentatuz, achala asquietsiz, oraïno pasionen esclabo bagare, ez gare christau icenez baïcen; ez dugu erreligionearen itçalaz bertceric. Cer baliatuco çaïcu arbasoen erreligionea leheneco pontura ethorria icusteaz, laço bagare beharren denaren gaïnean, barneco debocione edo jaïncotiartasunaren gaïnean, Jaïncoaren leguea beguiratcen ez badugu, eta eguiazqui prestu ez bagare? Jaïncoa gutaz adoratua nahi da içan *izpiritu* eta *egui*az. *Joan. 4.* Hori gabe, ah gure itsuac! Gure itchura eder gucia higuïn du. Haïnitz ongui daquigu nola munduac arbujatcen dituen barnearen contraco complimendu eta cerbitçuac; nola beraz nahi guindue Jaïnco, eguia eta izpiritu denac, onets letçan gure cerbitçu aleguiaco eta gueçurtiac? Jaquin, çaçue ecin jasan detçaquela horlaco sacrificio eta besta hampurutsu edo solemnelac : *Solemnitates vestras odivit anima mea, facta sunt mihi molesta, laborari sustinem.* *Isai. 1.* Egua hūnen ongui edo gaixqui aditcean datça, gure anaya maïte-maïteac, gure khar guciaren eta çuen Salbamenduaren fruitu gucia.

Jaïncoa, dio S. Augustinec, eguiazqui oho-

ratcen da fedeaz, esperançaz, eta caritateaz; horra erreligione guçia, bada, berthute horien, eta guciz, caritatearen eguitatea datça arimen biciaraztean, bekhatua hil-araciric.

Nahi daquiola Jaincoari çuen bihotzei eguia hori adiaraztea. Bai, bekhatuaz arnegatcea, bethicotzat bekhatuarequin hautstea, haren gathe gucien porroscatcea, bekhatuco bide gucien ebaquitcea, haren arriscu guciei ihes eguitea, eta Martyrec beçala, bekhatuari, odola isurtce-rainocoan, enferratcea, azquenean, bihotz ur-riquiz hautsi baten bidez, Jaincoarequin ba-queac eguitea horra perdunantçaren irabazteco hain baitezpadaco legueac, non ecin deus har baiteçaquete ordaïntçat Jaincoac eta Eliçac. Jaincoac berac ecin legue hori hauts, ez ezti deçaque, ceren ecin bere buruari ukho eguin baitioçoque; *negare se ipsum non potest*. II. Tim. 2.

Eztitasun eta ontasuna bera da, halaber ordean, hiruretan saïndua dena da. Nola baltsatuco da cikhinqueriequin? Çuen bihotzetaco notha hastiagarriequin? Non dic Jesu-Christo, saïnduen Saïndua antola deïteque bihotz batean Belial edo debruarequin? Trenteco batçar edo concilioac iracasten darocu, bekhatorosa, adi-

mendura gueroz , nihoiz ecin içan dela bere hobenetic garbitua, bihotza gambiatcen duen contricionezco mobimendua gabe. Ez othe da hori gure catechima? Ez dugu han ikhasi bekhatuac , Jaincoa ganic hastanduric , arima hiltcen duela? Ifernuco pena bethicotara egotzten duela? Aitcitic , penitenciac duela bakharric indarra, gure bihotza gambiaturic , Jaincoarena gure aldera itçularaztecoa, gure gatheac hautsiric , hobenen borratcecoa , eta ifernua hersiric , cerua guri çabaltcecoa? Ilkhi behar da , beraz baitezpada bekhatuco eta galtçapeneco ilhunbetaric , graciaren argui handiaz goçatu baino lehen; garbitu behar da conciencia obra hiletaric , churitu arima gure nigarren uretan, escatu barkhamendua, salbamendua eta bicia, auhen, othoitz, barur, erremusina edo amoinez , nahi badugu Jubilaueco gracia eta dohaïna ardietsi. Etçaye fagore hori eguiten Jaïtcoarequin aitcINETIC baquetu direnei baicen.

Hargatic , gure Anaya maïte-maïteac , exortatcen çaituztegu , othoïtzten çaituztegu Jesu-Christoren urricalmenduzco erraiez , munduan maïteren duçuen çuen salbamenduaz eta arimaz ; Jesu-Christoren amoreac gatic , erreque-ritcen çaituztegu , laster eguiçuc Jaincoarequin
baquetceco

baquetceco oren dohatsu hartara : *obsecramus pro Christo, reconciliamini Deo.* II. Cor. 5.

Etçaitezten ici penitenciaren nekhe salbagarriez, cer eta nolacoac diren frogatu gabe. Dasta çaçue, icusaçue cein den goço, errech eta çorionezco Jaincoarequin iharduquitcea. Eta eguiatz, ala ezti eta consolagarri baïta bere çaurien ganean nigar eguitea, nigar hetaz sendatuac içan behar direnean ! Bere hobenez damuztatua içateia, damu harc berac urratu behar dituenen ! Ala baïta goço, norc bere bekhatuac gatic, othoïtzac, barurac, limosnac eguitea, horiec berec iraunguitu behar dituztenaz gueroz, urac sua eguiten duen beçala.

Orain, G. Anaya, maïte-maïteac, Jainco Jau-naren deiha aditcen den huntan, ez detçatçuela gogor çuen bihotzac, aïtcitic eguiçue dembora deino çuen arimen cin-cinez salbatcera, utzi gabe ethortcera gaua ceïnetan ecin harico baït-çarete arimaco lanean.

Nahi guindue, Apostoluac beçala, alde gucietara gure boza mudatu, bakhoïtzari bere beharraren arauera mintçatceco : batì erran guineçoque, hauts çaçu desohoratcen eta galtcen çaituen adiqui derasun hori; bertceari berriz, erre çatçu liburu içurri çure bihotza poçoatcen

eta fedea mentura handitan ematen dauzquit-
 çuten horiec; huni erran guineçoque, iraungui
 çaqu amoïna handiez, ontasun biltceco duçun
 egartsu hori, ceïnac khaldatcen beçala bait-
 çaitu, asqui da behinere erran gabe; horri ber-
 riz, erreguela çaqu çure bici modu aïse, alfer
 eta mundutar hori, aurkhitcen çarelaric eli-
 çaco oficio eta othoitz baltsan eguiten ohi
 direnetan; jarraiquiz ira curtce onei eta probet-
 chuzco lan cembeitci; hitz batez, guciei erran
 guineçoquete, bihur çaitetzte Jaincoa gana eta
 çuen barnetara mudantça cin - cinezco eta
 eguiazco batez. *Convertimini peccatores.* Eguit-
 çuc guiriztinozco obrac çuen Jaincoaren aïtci-
 nean; emoçuc bekhatuentçat çor dioçuena, cir-
 rituqui beguiratcen duçelaric haren leguea :
facite justitiam coram Deo. Horla eguinez, çä-
 reten seguratuac betheco dituela çuen baitan
 bere urricalmenduac : *Credentes quod faciat*
vobiscum misericordiam suam. Tob. 13.

Galdetcen baduçuc, certaco behar duçuen
 Jubilaua eta perdunantça Jaincoarequin baquetu
 ondoan. Ihardetsico darotçuegu barkhatua den
 arren, guelditcen çäicula çor bat Jaincoaren
 çucentasunaren aldera eta hari deritço, *dembor-*
raco pena; eta horra cerc erran-araci dioen S.

Augustini, bekatua baitezpada behar dela i^{ca}n
 gastigatua penitenciaz mundu huntan edo pur-
 gatorioco penez, bertcean. Hala Prince batec
 eguiten ohi dio gaixtaguin bati gracia; ecen ar-
 dietsi arren bere barkhamendua, utzten du luce
 edo labur, bere gathetan edo desterruan, ahantz
 edo mezpreça ezdeçantçat haren beso mende-
 caria. Justua eta saïndua bera, osoqui garbi ez
 bada mundutic ilkhitcean, desterratua da dem-
 bora batentçat cerutic, eta païramen handitara
 condenatua, bere çorrac azquen cornaduraïno pa-
 ga detçaquen artean. Baïnan Eliça ama on eta bi-
 hotz-berac, bere haurrei guphidetsteco desterru
 eta païramen lazgarri horiec, çabaltcen du he-
 quin onetan perdunantcen thresora ceïna içana
 baitu ceruco bere esposa ganic. Han dire cerra-
 tuac Jesu-Christoren mugarri-gabe eta gaïndizco
 merecimenduac, haren Ama saïnduarenac,
 saïndu gucienac, ororen ethorburu bakharra
 delaric J. Christo bera.

Beraz, dohaïn guciz preçagarria da perdu-
 nantçaren gracia : errexten darocu gure hobe-
 netaric garbitceco lan nekhagarria, eta Jaïn-
 coaren çucentasunari diogun çor handia. Nor
 da gure artean hulaco fagorearen behar ez dena,
 Norc aguin dioçoque bere buruari osoqui prestu
 eta justu dela? Bici içan baguine ere bethitic

penitent beçala, oraïno escatu behar guindueque barkhamendua. Ah! nolacoa ez cen içatu Daviten damua eta urriquia, Nathan prophetac erançun edo erreportchatu cionean bere hobe-na? Guicia gatic, Jaïncoac berehala igorri cioen arren barkhamendua, cembar eta nolaco atse-cabez eta cigorradez ez cen içan, bere etche bihotzean cehatua? Norc eta nola erran Ma-nasesen penitencia bere presondeguian! Iscri-turac dio, penitencia handi bat eguin çuela Jaïn-coaren aiticinean, entçuna içan cela eta bere thronura berriz igan cela. *II. Paralip. 33.* Ez da achola, haren escandalac eta uholdez Jeru-salemen isuri çuen odol hoben-gabearen gazti-gutan, hiltcenetic berrogoi eta hamar urtheren buruan, hiri saïndua, bere templuarequin, haut-setara bihurtua içan cen, Judeaco jende gucia Babyloniara esclabo eremana içatu cen : biz-quitartean erregue hobenduna, Izpiritu saïndu berac laudatu duen penitencia eguin çuen : *Fac-tum est hoc.....propter peccata Mansses. 4. Reg. 24.*

Cer gare, gure A. maïte-maïteac, penitent haïn ospatuen aldean? Cer dire gure hobenent-çat jasaten tugun penac hequinen aldean? Bada icustecoric gure eta Eliçaren hasteco penitenten artean? Hauc ecen, nigarretan, baruretan, eta

hildura edo mortificacionetan çaramatçaten hamar, hamabortz, hogoi urtheac, eta batçuec bere bici gucia. Helaz! norc daqui hea gure confessione eta penitenciec ezduten berec penitencia mereci, direlacotz hobequi bekhatu berri batçu, ecen ez bekhatuen pagamendu? Ez othe dugu gueronec erakharri gure eta Eliçaren gänera Jaincoaren asarre eta iraquidura? Norc derraque noraräino Jaunaren äihercundea jarraiquico çayoten gure erreligione escas eta escandalei guri barkhatu ondoan ere? Niri dagot, diotsa Jaunac, jaçartcea, eguinen näiz bere demboran. Baïnan, emagun gure hobenen çorrac osoqui pagatu ditugula; ez ditugu egun oroz berriac eguiten? Helaz! gure Anaya maïtemaïteac, bethi ditugu bekhatuac eguiten; gure onguia bera hambat hutsez da nothatua, non behar baïtugu othoïtztu Jaincoa arren cerra detçan beguiac hequin gainean. Baldin ceruaren laguntçarequin partialier bagare escaïntcen çaicun perdunantçan, beguira gaïtecen hor gure penitencia akhabatcetic; aïtcitic içan bedi haren escas compligarria eta guerora eguiteco esportçu edo animo emaïlea : ecen haren premia handia dugu egun orozco hobenen çorra pagatceco, bethi gäizquira garamatçan jaïdurari enferrat-

ceco, munduan nausituac diren escandal arima galgarrien cutsuric ez hartceco. Hec beçala galduco gare, penitencia eguin gabe bici bagare.

Azquenean, gure Anaya maïte-maïteac, huna çuen bihotzen altehatceco arroçoïn eta chede handi botheretsuago bat : hura da J. Christo gure Jaunaren amodioa. Gure burua da, haren membroac gare eta caritateac guciac harequin izpiritu bat eguiten gaïtu. Haren bici gucia içan da bethico penitencia eta heriotce bat gure erresquetatceco. Maïta othe deçaquegu gure Jesus, penitencia maïtatu gabe? Bai penitencia, bekhatuari, munduari, eta gure buruei hil-arazten gaïtuen eta bakharric Jaïncoarençat biciarazten gaïtuen berthute hura Jaïncoaren amodioac, dio Apostoluac, hertehatcen gaïtu : gure lagun urcocquin izpiritu eta bihotz bat eguiten gaïtu; gure gucien bihotz eta arimez, urthuric beçala, bihotz eta arima bat eguiten du. Haren beguie-tan, baten beharra eta çorigaïtza gucien behar eta çorigaïtza da. Hanc eguiten du Symbolan aïthortcen dugun *saïnduen partaliertasuna*, ceï-naren eguitatea baïtatça, ceru lurretaco saïnduac ararteco jarraraztea dohacabe gucien fago-retan : ecen Jaïncoari oihuz dagozco, herioa-ren itçalean jarriac dauden hain bertce hoben-

durientçat, arren bada daitecen itçul haren garna. Ofrendatcen diotçote bere penitencien mercedimenduac, guibela dauden eta bere hobenen çorra pagatceco gaieztiren hambatentçat, amoreagatic ecen ezti deçan hauquien contraco aserradura eta arrasta. Ez balitz beraz gure artean, baicic hobendun bat, lehiatu behar guintezque guciac haren laguntcera eta Jujearen iraquidura facegatcera, ceren guciac bat-bertcearen membroac baicare, eta bat oïnhacetan denean, bertce guciac haren laguntceralaster eguitenbaïtute : *Quoniam sumus invicem membra*. Ephes. 4. Batçuen prestutasunac gure damu mina ezti eta goçatcen duen demboran, bertcen gogortasun eta sorhaïotasunac doloratcen du gure bihotza, eta orobat behar du eguin çuena. Iragatera utzico tuzte barkhamenduzco egun hauc. Arimen garbigarri eguinac diren egunac eztire baliatuco hec hobendunago eguitecotçat baïcen; urricalmenduzco besta handi hau mutu egonen da hequin bihotzeco gor eta gogortasunarentçat.

Bar gaïten beraz egun oro caritatearen lokharriaz : guciac bekhatoros gare; laster eguigun aldaren oïnetara; dugun othoïtz eguin eta penitencia; eguitcigun guiriztinozco obra khartsuac : eta permagune edo eforta saïndu batez, bortcha onets-garri, cayon batdeçogun eguin

Jaincoari, arren bada, guciei escaïnia çaïcun perdunantça hau, gucientçat içan dadin salbaggarri. Bat detçagun gure botuac Jaincoari, escatceco bekhatoros gucien onera itçultcea, prestu direnen onguian gogortcea, fedearen phitz-berritcea, Eliçaren çoriona, Gobernamentuaren baquea, J. Christo baitan haurride gucien salbamendua. Guc, legue berrico Prophetac, guc, Jaunaren Aphezac, joçagun Sionen clarina, bilaraz deçagun jende Christaua, adiaraz diotçogun Jaun-goïcoaren urricalmenduac, eta ahozpez jarriac, Eliça-athe eta aldarcaren artean, eguigun Daniel sainduac beçala, gure eta pobluaren hobenen aïthorra; ofrenda çagun hequien eta guretçat hostia adoragarria, Jainco aserratuaren facegatceco, amoreagatic ecen Diocesa handi hau eta Francia oraïno berriqui gaixtaqueriaz eta escandalaz estalia, bilhaca dadin benedicionezco lurra eta ceruco urricalmenduen icuscari miragarria.

BERAZ, Apostoluen cadira saïnduaren botherez, eta gure Aïta saïnduaren botu eta nahiaren arauera, solhas eguin ondoan Cathedraico gure Calonje errespetagarriequin, hunacer deliberatu eta ordenatu, deliberatcen eta ordenatcen dugun:

1º Jubilaueco perdunantça, gure Diocesan,

hasico dā, dathorren Marchoaren hamaçazpian, Gariçumaco hirur garren Igandean. Parropia bakhoitzean, iraunendu hogoï eta hamar egun, beherago chehatua den beçala. Gure Eliça Cathedralean, ceïnetara orduan bilduco baitire S. Andresco Jaun aphezac, idequico da pomposqui edo solemnequi Jubilaua erran den hilaren hamaçazpian. Gauça bera eguinen da, ahal beçambatean, Diocesaco hiri, herri, eta herrisquetaco Eliça nausitan. Bezpera arratseco *Angelusean*, joco dire ezquilac, biharamuneco bestaren seïnaletçat.

2º Christauen eta hequin Eliça - artçaiñen fagoretan, Jaun-Eretorec eta hequin ingurutaco aphez nausiec elkhar adituco dute, idequiceco Jubilaua hobequien çajoten demboran, cerratuco den beçala hargatic, Erearoaren hogoï eta hirurean, Igande octavacoan, ceïna içanen baita azquen ephea, Diocesa gucian. Abisatuco gaitüzte gu edo gure vicario generalac, horren gaïnean hartuco duten deliberacioneaz.

3º Jubilau idequitcea hasico da Meça nausi eta eder batetic, aïtcinean cantatcen delaric *Veni, creator*, eta ondoan delaric eguiten procesione handi bat, ceïnetan causitu beharco baitire herrico Eliça-guiçon guciac. Gombida-

tuac içanen dire orobat Jaun cargudunac , eta eguinen dire liburutto hunen azquenean seinalatuco diren othoïtzac.

4° Gure Cathedralean, halaber Diocesaco bertce Elicetan, Jaun aphezac bilduco dire ezquila dejan , astean bi aldiz ; Igandez landan, edo salbu, eta hobequien çajoten egun eta orenetan , Stacione handiaren eguitecotçat. Adiaracico diote pobluari aitcineco Igandetie, eta eguinen dire liburu huntan stacione bakhoitceco seinalatuac diren othoïtzac. Stacioneco Eliçatçat, Diocesa gucico, içanen da gure Cathedrala, eta berce herrietan, toquico Eliçaherrico jendentçat.

5° Basa-herritaco edo campainetaco Elicetan, eguinen da Stacione handia, bekharric Igandetan eta guertha ditezquen besta buruetan, herria abisatcen delaric. Aditcen dugu, aphezic gabe diren herriec irabaz deçaten Jubilaia, hauçoco Elicetan.

6° Perdunantçaco hogoi eta hamar egunetan, Jaun aphez guciec erranen dute Meçan *Collecta secreta*, eta communione ondoco othoïtza, *Pro gratiarum actione*, CVII. garren *Plaman*, hargatic, Rubricac debecatcen duen Meça egunez landan.

7° Christauei, perdunantça irabazteco obra edo eguintça seinalatuac eta hogoi eta hamar egunen barnean eguin beharrac, dire hauc ; 1° Gutaz aprobatu aphez bati confesatcea. 2° Bisitatcea debotqui eta khartsuqui bederatci egun seguituz edo hautsiz, herrico Eliça, ceïnetan, Sacramenduco aldareaz bertçalde, seinalatcen baïtitugu bertce ditezquen aldareac, non eguin baïteçaque bat-bederac bere Stacionea, ondoan erranen diren othoïtzac eguiten dituelaric. 3° Comunione saïndua eguitea.

8° Meçutuacedo ordenatuac diren othoïtzen eguiteco, erranen dire bortzetan *Gure aïta*, eta *Agur Maria*, fedezco, Esperantçazco, amodiozco eta contricionezco actequin.. Stacione bakhoïtzean, iracurtcen daquitenec, *Gure aïta*, *Agur Marien* orde, eguin detçaquete Stacione publicoentçat seinalatu othoïtzac, erran diren laur actac iratchaquiric. Stacione publicoetan aurkhituco direnentçat, aldi bikhoïtzac balioco du bi Stacione ichil edo particular.

9° Aïta saïnduac, othoïtzetan galdetcen dituen chede edo intencioneac dire, Jaincoari esquerren ematea 1° Eliçaren baqueaz, Francian erreligionearen bitzteaz ; 2° Jaincoa othoïtzea gora eta gorago altcha dadintçat Eliça saïndua ;

3° Aïta saïnduarentçat; 4° Emperadorearençat; 5° Francia guciaren baquearentçat, eta 5° Bidatcen edo gobernatcen gaituztenen onarentçat. Manu hau betheco da orobat othoïtz eguinic Aïta saïnduaren chedetara.

10° Ez duen arren Aïta saïnduac manatcen; ez barur, ez limosnaric, harequien batean exortatcen çaituztegu, othoïtzari barura iratchaquitcera; cerequin eguin duenac biçar edo liberal aguertcera erromes gachoen aldera. Eliçac çabaltcen dituenaz gueroz bere thresorac gure arimen salbatceco, çucen da aberetsec idec detçaten bereac, beharrean eta païramenetan diren J. Christoren membroen fagoratceco. Hargatic içanen da Eliçan cutcha cerratubat bere cilhoarequin, bisitetan eguinen diren amoïnen hara etchatceco.

11° Ez da Sacramendu saïndua aguerian emanen edo exposatuco, eguiten ohi den egunetan baïcen. Aldareac Jauntzico dire demboraren eta egunaren arauera.

12° *Lehenbico* Stacione handia hasico da Saïnduen Litanietaric; *Bigarrena*, Jesusen icen saïnduenetaric; *Hirurgarrena*, Andre dona Mariarenetaric. Litanien ondoan, cantatuco dire Psalmoac. Versetac, eta oracione liburu huntan

seinalatuac ; erreguela bera beguiratuco da,
hulaco bertce Stacionetan.

13^o Ematen diotegu bothere, erretor, Aphez
Eliça cerbitçari, *Deservant* deritçoten eta gutaz
aprobatu guciei, Stacionen gutitceco, bercelaco
batçuen emateco, baita ere bertce cembeit
obra onetara gambiatceco, erien, preso direnen
eta bertce eguiazco ecin-bertcea dequetenen
onetan. Azqueneco hauquin herroncan dire
haur comuniacten eztutenac, ematen çajotela-
ric, comunione orde, bertce obra edo eguintça
caritatezco eta erreligionezco.

14^o Confesor gutas aprobatuec, libra edo
absolbi deçaquete, Jubiliuaren ariaz eta con-
cienciaren tribunalean bekharric, guri eta Aïta
saïnduari erresalbatuac diren casu gucietaric.
Gambia detçaquete halaber votu simpleac bertce
obra saïnduetara, bethico garbitasunarenaz eta er-
religionea deritçonaz landen. Dispensa detçaq-
teque halaber, ordena saïnduez beçambatean,
censuren hautstetic dathorren irregularitatetaric;
eta azquen buruan, luça deçoquete Jubilaueco
dembora, absolucionea hartceco gai aurkhituco
ez dituztenei. Bothere hautaz oroz baliatuco dire
çuhurtcia handi betequin eta Eliçaren erre-
gulei jarraïquiz, Jaïncoari contu eman beharco
diotela orhoituric.

Jurisdicione batec, ez duen arren, canonen arauera, iragaten artçain batec bere eličaco duen tituluaren mugarria, eta concordatac, erretorei ematean bere azpico elicen bisitatceco eta caıntceco çucena, ez dioten arren escuric ematen bere parropiatic campoan : guciarequin ere, Jaincoaren obra errexteco eta hedatceco, bothere ematen diogute, erretorei, bertce eliča cerbitçariei eta aphez gutaz aprobatei, lanean haritceco bere herritic campoan ere, dela bere dela gure Diocesaco bertce cantoïnetan, baldin hetara deithuac edo gombidatuac badire erretoraz edo deservant icena dutenez, beguiratcen dituztelaric elkharren artean honestasunaren legueac; erresalbatcen ditugu hargatic, bakhoitz batçuentçat eguin dituzquegun edo detçaquegun berezgune edo excepcioneac ceïnac eçagutaraz baitetçaquegue orduan.

15^o Bayonan eta bertce Eliça, Marchoaren hamaçazpian Jubilaua idequi edo hasico dutenetan, besta akhabatuco eta cerratuco da Aphirilaren hamabortzean procesione handi battez, ceïnetaco bilduco baitire Cathedralera bi elicetaco Jaun aphezac. Procesione ondoan, cantatuco da *Te Deum* eta emanen Sacramendu saïnduaren benedicionea.

Beraunduago Jubilaua idequi dutenec, hertsico dute, hogoï eta hamargarren egunera hurbilen den Igandean, ceïna iñanen baïta orobat perdunantça eguna.

Jaun Cardinal Legataren decreta Apostolica, eta gure Manamendu hau iracurriac iñanen dire Eliça gucietan, bederen, çortci egun Jubilaua hasi baïno lehen, Poblua prepara dadintçat Eliçac eman nahi diotçon dohain eta fagorez probetchatcera.

Bayonan emana, Abendoaren, hogoï eta laurean, 1804 rean. Elhur-Hilaren, hirurean, 13 garren urthean.

+ J.-J. Bayonaco Aphezpicua.

Jaun Aphezpicuaren mecz,

HONNERT, Secr.



IRACATSPENA

CATECHIMA PLANTAN,

Jubilau beçala ematen den Perdunantça
osoaren gäinean.

§. LEHENA.

Perdunantça eta Jubilaua, cer diren.

GALDEA. *CER da Perdunantça deithcen den
gracia?*

I HARDESTEA. Hura da, Bathayatu ondoan
eguin diren, eta Penitenciaco Sacramenduac
borratu dituen bekhatuentçat, çordon guel-
ditcen garen, pena demboracoaren barkha-
mendua.

*G. Penitenciaco Sacramenduac, bekhatuac
bartkhatcean, ez ditu bada hequin penac ere
barkhatcen?*

I. Sacramendu horrec barkhatcen du culpa
edo

edo Jaïncoari bekhatuaz eguin çayon idoïa eta mereitu diren bethiereco pena guciac; ez ohi du ordean barkhatcen demboraco pena, ceïna jasan behar baïta, edo mundu huntan, penitenciaren bidez, edo bertcean, Purgatorioco suaz.

G. Ez othe da asqui Confesorac ematen darocun penitencia?

I. Ez, ecen confesorac ematen duen penitencia deus ere esta, bekhatuarençat jasan behar guintuzquen demboraco penen aldean.

G. Nola frogatuco daucuçu hori?

Eliçaco lehen mendetetaco diciplina edo costumatic, ceïna ecin erran baïditeque garratzequia içan dela. Orduco penitenciac haïnitz ciren garratzac, eta bacirauten maiz asco urthez. Ondoan ezritu du Eliça-ama onac bere garratztasun çucenbidezcoa, utziric confesoren çuhurtciara pena arinagoen ematea, bekhatorosen disposicionen arauera; hauc ordean hethi çordun guelditcen direlaric asqui pagatu ez diruzten edo Perdunantcec barkhatu ez diotçoten penentçat.

G. Noren ganic içatu du Eliçac Perdunantcen emateco botherea eta indarra?

I. Jesu - Christo ganic, erran cerauenean Apostoluei eta bequin presunan Jaun aphez,

picuei, *lurrean amarratuco duçuen gucia amar-ratua içanen da ceruan*, eta *lurrean lechatuco duçuen gucia lechatua içanen da ceruan ere*. Math. 18. Eliça lechatceco bothere hortaz baliatcen da guri, perdunantcen bidez, bekatuentçat çordun garen demboraco pena barkhatuz; çor hura ecen gathe bat beçala da, ceruan berchala sartcetic baratcen gaituena.

G. Eliçac eman tu Perdunantçac lehen mendataric?

I. Bai, ematen hasi cen Apostoluen demboran; eta mende guciez costuma hori iduqui du. Jaun done Pauloc eman cion corinthiaco lohiari, barkhatu cionean, christauen othoïtzetara, haren hobenac mereci çuen penaren portcibat. Eliçaren lehen egunetan, Aphezpicuec gracia eguiten cioten penitent cirenei, Martyren mercecimenduen eta othoïtcen ariaz. Hitz batez, arçain nausiac edo Aphezpicuac bothere hortaz baliatu dire; eta concilio edo Eliçaco batçarrec laudatu eta ontçat iduqui dute Perdunantcen emateco costuma edo ohitça preçagarria.

G. Cer bidez Perdunancec barkhatcen darocute bekatuentçat çor dugun demboraco pena?

I. Eliçac bekhatoreari ifiniric, ezperen aplicaturic J. Christoren mugarri-gabeco mereci-

menduac, Andre dona Mariarenac, ceinac hañitza
paratu baitu bekhatuic eguin gabe, eta azque-
nean saïnduenac, ceinac orobat jasan baitute he-
quin bekhatuec mereci çuten baino guehiago.
Merecimendu horiei deritçote *Eliçaco thresora* -
G. *Certaco deritçote edo deithcen dire Eli*
çaco thresora ?

I. Ceren hec baitire aberetstasun izpiritual
batçu Eliçac aldaratuac dauzcanac eta perdu-
nantcen bidez partitcen dauzquigunac, Jain-
coari çor diogunaren pagatceco.

G. *Ez othe da J. Christoren sobraniaçco*
merecimenduei idoi edo injurio eguita, hequi
saïnduen mereciac iratchaquitcea, harenac as-
quiac ez balire beçala ?

I. Ez horlacoric; sinhetsten dugu ecen, saïn-
duen eta gure penitencia eta merecimenduec
bere balio gucia dakharquetela J. Christorene-
rariç bakharric.

G. *Cer deitcen duçu Perdunantça Jubilau*
moldecoa ?

I. Hura da Perdunança plenario edo osoa,
Jubilau demboran ematen den beçalacoa, cein-
nari Aïta saïnduac ematen baitio icen hori,
haren ematera dakharquen arroçoinaren han-
ditasuna eracutsteco, Christauac hartaz baliat-

cera hobequi erakhartceco, eta bide hortaz ; goço eta consolacione handiago bat hequi sentiarazteco.

G. Cer da Perdunantça oso edo plenarioa ?

I. Hura da, bekhatuac barkhatu diren ondoan, hequintçat jasateco guelditcen çaicun demboraco penaren barkhamendu osoa edo plenarioa.

G. Cer aditcen duçu Perdunança plenario edo osoa ez denaz ?

I. Aditcen dut, demboraco erran den penaren çathi edo parte bat baïcen barkhatcen ez duena : hala nola baïtire, berrogoï egun, ehun edo urthe bateco penen perdunantça edo barkhamendua.

G. Cer dire berrogoï, egunetaco, urthe bateco eta bertce hunelaco Perdunantçac ?

I. Perdunantça esdizcaco horiec barkhatcen diotçore penitenteï, Jaincoaren justiciari çordun diren, eta lehenagoco berrogoï, ehun egunetaco, urthe bateco penez, paga cetçaqueten çorrac ; hargatic perdunantça horiec aria handi badute, penitencia publicoco demboretan, Eliçac ematen cituen pena canonicoac deithcen direnequin.

G. Non dic dathor Jubilau icep hori, eta cer erran nahi du ?

I. Icen hori heldu çaïcu Hebrearren ganic , eta da icen goçagarri eta bozcariozco bat. Besta handi bat cen Juduen artean , berrogoi eta hamar urthetariç eguiten cena , ceïnetan Jaincoac meçutu baitçuen eslaboen libro utzteä , ontasun saldu eta bahituez bat bedera jabetcea , eta corretariç quito eta suelto içatea.

G. Cer aria da Hebrearren eta Christauen Jubilauaren artean ?

I. Judutarretan guerthatcen cena , dio Apostoluac , Christauen artean guerthatu behar cenaren itchura edo figura bat cen. Hequin Jubilauac seinalatcen çuen graciaco eta evangelioco dembora , ceïnetan J. Christoc ardietsi baitarocu bere aïta ganic gure çorren barkhamendua , debruaren gathetariç librantça eta ceru , gure eguiazco herrico primeçan berriz sartceco çucena.

§. II.

Jubilauaren Abantaïlez.

G. Certan datça Jubilauac Perdunantça oso edo plenarioen gaïnean duen abantaïla ?

I. Penaren barkhamendu osoaz beçambatean , bata eta bertcea orobat dire ; bainan Jubilauac garaïa darama Perdunantcen gaïnean ;

hainitz arroçoïn saïndu eta privilegio gatic.

G. Ceïn dire arroçoïn saïndu eta salbagarri hec?

I. 1º Oraïco Jubilauac behatcen du Franciaco Eliça gucien ona; beraz ongui cimendatua eta duda gabecoa da. *2º* Hunen emateco planta, morga edo solemnitatea handiagoa da; ceremoniac saïndutasuna eta errespetua bere ganatceco gaïagoac dire. *3º* Indar guchiago du balsan eguiten diren othoïtz eta obra onen gatic, ceïnen gainera isurtcen bāititu Jaincoac graciatic ugari edo gaïndizcoenac.

G. Erraguçu çoindiren aïphatu ditutçun Privilegio bereci hec?

I. 1º Escu ematen du Perdunantça hunec Jaun Aphezpicuaz aprobatuac diren confesoretan nahi dena hautatceco. *2º* Hauqui ematen diote indarra, Aïta saïnduari eta aphezpicuei erresalbatuac diren casuetaric libratceco, Jubilauaren irabazteco chedetan diren penitentac. *3º* Confesor hauc badute orobat escua censurataric eta bertce Eliçaco pena batçuetaric libro-igortceco, baïnan concienciaco tribunalean bakharric. *4º* Badute confesor hauc bothere botu simpleac, cembeit bakharrez landan, bertce eguintça edo obra onetara aldatceco.

Horice guciac chehatuac dire Jaun Aphezpi-
cuaren Mandamenduan.

*G. Nola behar da baliatu Jubilauac confe-
sora berezteco ematen duen escu edo bothereaz?*

I. Eliçac bothere hori ematean duen chedea
da, bakhoitzac berez deçan, confesor arguitu,
çuhur eta khartsuen artean, fidancia eta liber-
tate guchiago sentitcen duena. Băinan bere
burua enganatcea eta arima galtcea leiteque con-
fesor guti arguitu eta largoen bilha ibiltçea.

*G. Botuen gambiantça esca deiteque bertce
arroçoïnic gabe, baïcen Jubilau dembora ce-
ren den?*

I. Ez, ez du Jubilau demborac onetsten
gambiantça hori eguita nola nahi eta çucen-
bidezco arroçoïnic gabe.

*G. Eta Jubilauac libratcen edo dispensatcen
du penitencia eguitetic?*

I. Ez, Christau guciac, eta guciac bekhatore-
sec, eguin behar dute penitencia eta hilduratu
edo mortificatu bere haraguia : ecin bertcela
hezico dute bere pasionen burfudia, ecin de-
seguinen dituzte bere aztura edo habitudac ;
ecin bigarren eroricotaric beguiratuco dire, eta
beraz ecin salbatuco dire. Hargatic ere Aïta
saïnduac ez diote Jubilauco gracia ematen

eguiatzqui penitent direnei baïcen; halaber manatcen diote confesorei, penitencia salbagarribat halacoei ematea.

G. Jubilaua balia daquioquete, hunen estacuruan, Jaincoari bekhatuentzat gor diotena pagatcetic libratu nahi luquetenei?

I. Jubilauaren gracia ez da emana gure laçqueriaren fagoratceco, aïtcitic bai, gu herbalac laguntceco, gure ahal-escasen eta khar gutiaren ordaintzat içateco.

G. Cer chedec behar gaitu erakharri Jubilauaren irabaztera?

I. Badire bertcen artean börtz lehenac eta bereciac. 1^o Jubilauac ematen dauzquigu ohi baino ugariago edo abundantago diren bide eta paradac, Jaincoarequin baquetceco, eta gor diogun demboraco penaren osoqui pagatceco; cein pena baïtezpada jasan behar baïta mundu hunan edo bertcean. 2^o Segurantzaric ez içateac hea berriz içanen dugun Jubilau baten parada lehiaraci behar gaitu haren irabaztera. 3^o Baltzan eguiten ditugun obra onac eta Eliçaren ot hoïtzac gaitago dire guri ardietstecotzat Jaincoagana itçultceco gracia. 4^o Ez dugu mezpreatu behar Eliça-amac eguiten darocun fagorea, partialier eguin nahi gaituenean J. Christoren eta

sa nduen merecimendu eta satisfacione gain-
dicoez. 5^o Nolacoa ez da gure Eliça - ama
saïnduaren chede eta egartsua, hertchatcen gai-
tuenaz gueroz dohaïn handi huntan partalier
içatera, bilhatcen duaric, Jubilauaren bidez,
ardietstea ceruco benedicioneac beretçat eta
Christau poblu guciarentçat.

*G. Cer pensatu behar da, Jubilaueco graciaz
baliatcera lehiatcen eta permatcen ez direnez?*

I. Beldur içan behar da, dohaïn bakhan be-
çaïn preçagarri huntaz contu guti laçoqueriaz
induquitcea, dela, Jaïncoac hetaz eguinen duen
arbujo eta erreprobacionearen ethorburua.

§. III.

*Cer eguin behar den Jubilauaren irabazteco
eta hartaz baliatceco.*

*G. Ceïn dire Jubilaueco perdunantçaren ira-
baztecotçat baitezpadaco diren condicioneac?*

I. Badire hirur : 1^o Era beharrena da gure
bihotza, eguiaz eta cincinez Jaïncoa gana it-
çultcea. 2^o Graciaco estatuan içatea, eta, ez
choïlqui bekhatu mortala edo arima hiltcen duena
higuïn içatea, baïnan bertçalde, irabaci nahi
bada osoqui perdunantça, içan behar da bek-
hatu venial gucietaric desamarra edo desteca-
tua. 3^o Condicionea da, Aïta-saïnduaren Bulac

manatcen dituen eguintça edo obragucien oso-
qui bethetcea.

G. *Jubilaueco confesione eta comunionea eguiten dutenec cin-cinezco gambiantça edo conversione bat gabe, probetchu ric batere iguriq othe deçaquete perdunantçatic?*

I. Helaz, Dohacabeac! probetchatcetic ur-
run, içigarrizco sacrilegioez cargatcen dire;
eta cembatenaz fagore handiagoez garzqui ba-
liatcen baitire, hambatenaz, bertce demboretan
baino, hobendunago bihurtcen dire.

G. *Certaco dioçu graciazco estatuan behar dela içan Jubilaueco perdunantçaren irabazteco?*

I. Ceren demboraco penaren barkhamendua
fagore bat baita, Eliçac, Jaincoaren legue çu-
cenen arauera, ecin eman deçaquena, baïcen Jain-
coa gana itçuliac eta harequin baquetuac direnei.

G. *Baïtezpado othe da, Bulac exlejitcen dituen obra guciac graciazco estatuan eguitea?*

I. Bederen hobe eta segurago da hec gra-
ciazco estatuan bethetcea, ceren orduan, Jain-
coaren aïtcinean agradagarriago baitire eta bak-
hoïtzarentçat probetchu haïnitz handiagoco;
hargatic hasi behar da confesione on batetariç:
Baïnan perdunantça irabaztecotçat, baïtezpada
graciazco estatuan behar da içan, ez choïlqui

communiatcean , baïnan bai oraïno , erran diren obretaric azquena eguiteco demboran ere , ez balitz ere comunionea azquen obra hura.

G. Erra datçu bat-banaçca Aïta saïnduaren Bulac , Jubilaua irabazteco , manatu dituen eguintça eta obrac ?

I. 1^o Confesatu behar da , eguiazco eta cin-
cinezco bekhatuen urriquirequin. 2^o Bisitatu
Jaïncotiarqui Jaun aphezpicuac bere Manda-
menduan seïnalatu Eliçac , bederatci egunez ,
edo lerroan edo hautsica. 3^o Eliça , bakhoïtza
bisita aldi gucian , erran , othoïtzeco izpiritua-
requin , bortzetan *Gure Aïta , Agur , Maria* ,
esquerrac Jaïncoari emateco , Franciaco Eliça-
ren baqueaz eta erreligionearen lehengo esta-
tura ethortceaz ; Eliça-ama saïnduaren gora-
penarentçat , gure Aïta-saïnduarentçat , Empe-
radore eta bidatcen edo gobernatcen gaituzte-
nençat. Asqui da guciarequin , Aïta-saïnduaren
chedetara othoïtz eguitea. 4^o Eta comuniatu
behar da sacramendu handi horrec galdetcen
duen bihotz garbiarequin.

*G. Ez othe da , Jubilau hunen irabazteco ,
behar barurtu , edo eguin cembeit erremusina
edo amoïna ?*

I. Ez diren atren barura eta amoïna , Aïta

saïnduac eslejitcen dituen gaucen artean, orhoïtu behar da, Raphael Aïnguervac, Tobias saïnduari erranaz, barurac lagundu behar duela othoïtza; eta ceru aserratuaren eztitceco eta Jaunaren urricalmenduaren merecitceco, bideric hoberena dela amoïna. Jubilau dembora içan behar da, othoïtzeco, hildura edo mortificacioneco eta obra on gucietaco aroa eta sasoïna. Obra hauc eguin behar dire guciz, Eliçac bisitatcen diren eta bertce Bulaco eguin bideac bethetcen diren egunetan.

G. Eliçac ecin bisitatuco dituztenac ez ahal dire gabetuac içanen Jubilauaren graciaz?

I. Ez balinba horlacoric: Bulac ematen diote Aphezpicuei eta hauquin bidez, confesorei indarra eta escua bisita hequien cembeit bertce obra onetara aldatcecoa, erien, preso direnen, eta ecin bertce eguiazco bat dutenen fagoretan.

G. Stacione handi eta publicoetan aurkhituco direnec behar othe dituzte bethe bertçalde erran diren bederatci Stacioneac?

I. Ez; Stacione handi batec balio ditu bi ichil edo particular, Mandamenduan errana den beçala.

G. Othe du confesorac botherea Jubilauaren dembora luçatcecoa?

I. Ez choilqui luça deçaque; eguin ere behar du, icusten duenean ezdirela penitentac asqui disposatuac sacramenduetara : ez da ere preparacione hori ardietsten ohi bet-betan, aïcitic bai emequi-emequi eta demborarequin.

G. *Confesorac, Jubilau demboran, haïn behar othe dire içan Chirritu eta arthosac, preparacione eta disposicione horien gainean, nola baitire bertce demboretan?*

I. Ecin confesorac behinere aldara deitezque hortaz beçambatean, Eliçaco erreguela saïnduetaric : aïtcitic artha guchiago behar dute ekharri dembora balios hortan bertcetari baiño, ceren penitentac, Jubilau-demboraco confesionetan, fidago eta antsicabeago baitire; eta baldin, çori gaïxtoz, balio gabeac badire, hequin salbamendua mentura eta irriscu handiangoan baita.

G. *Nola eçagut deïteque irabaci dela Jubilaua?*

I. Señale bereci eta handienac dire 1^o Bekhatuarendaco hastio edo higuïntça handi bat. 2^o Costuma edo habituda gaïxtoen gainea berhico atçartasuna. 3^o Bekhatuco bidetaric ihez eguitea. 4^o Guiriztinozco eta guciz gure estatuco berthutetan bethi aïtcinatcea.

G. Cein dire Jubilaueco graciaren beguiratceco bideric hoberen eta indartsuenac?

I. Badire hañitz, hala nola, 1º Bere bu-
ruari cinqui eta tinqui sinhets - araztea gure
eguiteco bakbarra salbamendua dela. 2º Maiz
orhoitcea laur azquen finez, heriotceaz, juja-
menduaz, ifernuaz, eta parabisuaz. 3º Arthos-
qui eguitea goizeco othoitza, deliberacione
onac hartuz, eta arratsecoa, conciencia mira
edo examinatz. 4º Ihes eguitea alferqueriari,
lagun eta hantacione gaixtoei, ostatuari; hitz-
batez, Jaincoaren gracia galaraz deçaqueguten
guciei. 5º Sacramenduen hantatcea. 6º Jauna-
ren hitza aditceco arthatsu icatea. 7º Liburu
onen iracurtcea. 8º Jende Jaincotiar eta pres-
tuequin solhas eguitea. 9º Egun oroz, saindu-
qui Meça entçutea. 10º Obra urricalmenduzco
edo Misericordiazco, gorphutzeco eta arima-
coen eguitea.

JUBILAU ECO

STACIONETAN EGUITECO OTHOITZA.

Abisua. Ez den arren premia Jubilauaren irabazteco, othoïtz-molde batcuei chirrituqui jarraïquitcea, Jaun Cardinalaren Decreteco chede bakhoïtzari ihardetsi beharrez; aïtcitic asqui delaric nahi den othoïtzen eguita chede hetara, guciã-gatic ere, lagundu nahiz Christauen kharra, hemen eman tugu Psalmu, Antiphona, verset, eta oracione batçu, Diocesa huntan, cantatu beharco direnac Jubilaueco Stacione handi eta Procesionetan. Iracurtcen ez daquitenec betheco dute eguin-bide hori, Aita saïnduaren chedetara erranic Stacione bakhoïtzeco, bortzetan Gure Aita, Agur, Maria, Fedezco, Ezperantçazco, Amodiozco eta Contricionezco, actequin.

JUBILAUAREN IDEQUITCEA.

CHEDEAC.

Aleguera caïrezte Franciaco Eliçari ematen

çajon ontasun handiaz ; othoïtz çaque Izpiritu saïndua, esca dioçocue bere laguntça. Hel eguiçuc Jaincoaren Ama eta saïnduen hegalen azpira ; galde guiçue hequin arartecorasunaz, cincinezco conbersionearen dohaïna eta Jubilaueco perdunantça huntan, parteric handiena içateco gracia.

O T H O I T Z A C,

*Jubilaua idequitcean, Izpiritu saïnduaren
laguntça ardietsteco.*

CANTICA, Veni Creator, etc.

Veni Creator.

Çato, Izpiritua,
Creatçaïle saïndua,
Bisita çatçu hotzac
Orhoï, gure bihorzac.

Bethë çaçü graciez
Cerutic igorriez,
Gure adimendua
Ceronec formatua.

Qui Paracletus.

Consola çaille ona,
Icendatcen carena,
Dohaïn baliosena,
Jaun-goïco gorarena.
Ithurburu bicia,

Amodio garbia,
Caritate khartsua,
Gantçuçari saïndua.

Tu Septiformis.

Çuc çazpi suerteac
Ematen berthuteac ;
Çu çare-erri sendoa
Jaunaren escucoa.

Noïz beït çure arguiac
Iñoranten mihiac
Bethë cituen hitzez
Guciz miragarriez.

Accende lumen.

Detçan argui gureac,
Çlara gogo tristeac,

Bai çure su borthitzac
Susta gure bihotzac.

Gure gorphutzecoa
Deçan indar flacoac
Borthitz çure graciae
Bethi sendagarriac.

Hostem.

Igor-açu gurea,
Urrun etsai dorphea,
Emaguçu baquea
Dohain gucz maitea.

Gutaric bat-bedera
Bida çacu onera,
Çurequin ez deçagun
Othoi, gaitzie eçagun.

Per te Sciamus.

Çure arguiz deçagun

Othoi, ongui eçagun
Jaïncu eguiazcoa.

Bethi laudatcecoa

Sinhets deçagun Aïta;
Seme gucz puchanta,
Eta Izpiritua
Biez produitua.

Gloria.

Bethi laudorioac
Tuen Aïta Jaïncoaç,
Seme hilic bitztuac,
Izpiritu saïnduac.

Emittes Spiritum.

Igor-açu saïndua
Othoi, Izpiritua:
Eta mundugucia
Eguinen da berria.

OTHOITZA.

O Jaïncoa, Izpiritu saïnduaren arguiaz, Christauen bihotzac iracatsi ditutçuna, iguçu Izpiritu saïndu hura, gusta eta maïtaraz deçaguntçar onguia, eta isur deçan gure gainera bere goço eta consolacionea.

LEHEN STACIONEA.

CHEDEAC.

Othoïtz eguiçu çure bakhatuen barkhamenduarentçar;
Amanda honorable bat, desordena eta escandala ague-
rientçar; beheramendu handirequin galde çacu bekha-

torosen onera itçultcea , Jaïncotiartasunean aïtcinatcea ,
eta onguian prestuen iraupena.

S A I N D U E N L I T A N I A C

JAUNA , urrical gaquiz-
quitçu.

Christo ; urrical gaquiz-
quitçu.

Jauna , urrical gaquiz-
quitçu.

Christo , adi gatçaïtçu.

Christo , entçun gaitçarçu.

Jaïncu Aïta ceruetacoa , ur-
rical gaquizquitçu.

Seme munduaren erosçai-
lea , urrical gaquizquitçu.

Jaïncu , Izpiritu saïndua ,
urrical gaquizquitçu.

Hirurtasun , Jaïncu bat ça-
rena , urrical gaguiz-
quitçu.

Maria saïndua , gutaz ot-
hoïtz eguiçu.

Jaïncuaren Ama saïndua ,

Virginen Virgina saïn-
dua ,

Michael saïndua ,

Gabriel saïndua ,

Raphaël saïndua ,

Aingueru era Archan-
gelu Saïnduac.

Izpiritu dohatsuen herrun-
ca Saïnduac , gutaz ot-
hoïtz eguiçu.

Joannes Batista saïndua ,

Joseph saïndua ,

Patriarcha eta Propheta

saïnduac , gutaz ot-

hoïtz-eguiçu ,

Piarres saïndua ,

Paulo saïndua ,

Andres saïndua ,

Jacobe saïndua (Zebed),

Joannes saïndua ,

Thomas saïndua ,

Jacobe saïndua ,

Philipe saïndua ,

Bartholome saïndua ,

Mathiu saïndua ,

Simon saïndua ,

Thadeo saïndua ,

Mathias saïndua ,

Barnabe saïndua ,

Lucas saïndua :

Marcos saïndua ,

Apostolu eta Evangelista

saïnduac , gutaz ot-

hoïtz-eguiçu.

Gutaz othoïtz eguiçu.

Gutaz othoïtz eguiçu.

Gutaz othoïtz eguiçu.

duac ; gutaz othoitz
eguique.

Anna saïndua ,
Maria Magdalena, saïn-
dua ,

Agatha saïndua ,
Lucia saïndua ;
Agnesa saïndua ,
Cecilia saïndua ,
Catharina saïndua ,

Theresa saïndua ,
Quiteria saïndua ,
Virgina eta Alhargun
saïnduac, othoitz egui-
que guretat.

Jaïncoaren saïndu eta
saïnda guciac ,
Ararteco guertha çaquiz-
quigute.

Jauna çaren gure aldera ur-
ricalmentdusu, eta barkha
dieçaguçu.

Jauna ; çaren gure aldera
urricalmendutsu eta ent-
çun gaitçatçu.

Gaitz gucietaric, Jauna ,
beguira gaitçatçu.

Bekhatu gucietaric, Jauna,
beguira gaitçatçu.

Çure asarrecotic, Jauna,
beguira gaitçatçu.

Heriotce bat-bateco eta us-
tecabecotic , Jauna, be-

guira gaitçatçu.

Debruaren trampa gucieta-
ric, Jauna, beguira gait-
atçu.

Aserreco, gorroto, eta ga t-
cerizco gucietaric, Jauna
beguira gaitçatçu.

Lohiqueriaco izpiritutic ,
Jauna , beguira gaitz-
çatçu.

Ozpin eta Elementetaric ,
Jauna, beguira gaitçatçu.

Heriotce bethicotic, Jauna,
beguira gaitçatçu.

Çure guicon-eguite saïn-
duco Misterioaren ariaz ,
Jauna, beguira gaitçatçu.

Çure ethortcearen ariaz ,
Jauna, beguira gaitçatçu.

Çure sorcearen ariaz, Jau-
na , beguira gaitçatçu.

Çure Bathayo eta barur
saïnduaren ariaz, Jauna,
beguira gaitçatçu.

Çure Gurutce eta Païra-
menaren ariaz , Jauna,
beguira gaitçatçu.

Çure hiltce eta Ehortzte-
aren ariaz, Jauna beguira
gaitçatçu.

Çure birtze saïnduaren a-
riaz , Jauna , beguira
gaitçatçu.

Çure cerura igate ederrers-
recoaren ariaz, Jauna,
beguira gaitçatçu.

Izpiritu saindu consola-çai-
learen Ethortçearen a-
riaz, Jauna, beguira
gaitçatçu.

Azquen Jujamenduan, Jau-
na, beguira gaitçatçu.

Gu bekhatorosac, otho
entçun gaitçatçu.

Barkha dieçaguçun, Jauna,
othoizten çaitugu.

Gutaz urricalmendu içateaz,
Jauna, othoizten, çai-
tugu.

Eguiazco urriquimendura
erakhar gaitçatçun, Jau-
na, othoizten çaitugu.

Bekhatuen barkhamendua
eman dieçaguçun, Jauna,
othoizten çaitugu.

Bihotz urriquimenduzco eta
nigarrezco ithurri bat
diguçun, Jauna othoiz-
ten çaitugu.

Fedea, Esperantça eta ca-
ritatea diguçun, Jauna,
othoizten çaitugu.

Çure Eliça saindua bida
eta beguira deçaçun,
Jauna, othoizten çai-
tugu.

Eliça sainduaren etsaiac be-
hera detçatçun, Jauna,
otho zten çaitugu.

Apostoluen alkhia eta Eli-
çaco herrunca guciac Er-
relione sainduan beguira
detçatçun, Jauna, ot-
hoizten çaitugu.

Gure Aphezpicua, bere ar-
thalde guciarequin, çure
cerbitçu sainduan man-
tena deçaçun, Jauna,
othoizten çaitugu.

Gure Emperadorea beguira
deçaçun, Jauna, othoiz-
ten çaitugu.

Erregue eta Prince guiriz-
tionei baque eta eguiazco
acordua eman dioçoçu-
ten Jauna, othoizten
çaitugu.

Christau jende guciari ba-
quea eta batasuna eman
dioçoçun, Jauna, ot-
hoizten çaitugu.

Gu gueror çure cerbitçu
sainduan gogor eta be-
guira gaitçatçun, Jauna,
othoizten çaitugu.

Gure arimac ceruco guti-
cietara alcha detçatçun
Jauna, othoizten çai-
tugu.

Gure ongui-guile guciei bethiereco onac emotçuten, Jauna, othoizten çaitugu.

Gure arimac, anaienac, urcoenac, ongui-egulenac bethico gal-bidetic athera detçatçun, Jauna, othoizten çaitugu.

Lurrari frütuac eman eta beguira diotçotçun, Jauna, othoizten çaitugu.

Arima Joanei bethico errepasua eman deçoçuten, Jauna, othoizten çaitugu.

Arren entçun gaitçatçu, Jauna, othoizten çaitugu.

Jaıncoaren semea, arren

entçun gaitçatçu, othoizten çaitugu.

Jaıncoaren Bildotz munduco bekhatuac khentcen ditutçuna, Barkha dieçaguçu.

Jaıncoaren Bildotz munduco bekhatuac khentcen ditutçuna, arren entçun gaitatçu.

Jaıncoaren Bildots munduco bekhatuac khentcen ditutçuna, urricalgauizquitçu.

Jauna, urricalgauizquitçu, Christo urricalgauizquitçu.

Jauna, urricalgauizquitçu.

OTHOITZA.

O Jaıncoa, ceınaren eguitatea baitatça urricari içatean eta barkhatcean, entçun çaçu gure othoıtza, eta hauts-betça çure ontasun handiac gure eta çure cerbitçarien arimac lothuric daduzcaten bekhatuen gatheac.

PSAL. 50. Miserere.

Jauna, nauçun urricari bekhatoros handia, Nola bihotza baituçu guciz urricaria.

Halacoa duçula obraz maiz duçu eracutsi, Aldiz, orai, halaber eracuts daçu niri.

Garbi naçaçu neure falten cikhinetaric, Eta chahuturic bidal hequien nothetarie.

Ecen ethorri naiz neure hutsa eçagutcera,
 Bai hura neure etsai dudala jaquitera.
 Çu çaitut Jaun ona, bakharric damuztatu,
 Çure begüietan dut eguin itsusqui bekhatu.
 Çuc bakharric duçu haren barkhatceco escua,
 Barkha beraz, barkha, Jauna nic eguin bekhatua.
 Eguietan aurkhi dadin cutaz erraten dena,
 Çu çarela othoitz onei behatcen çaizcotena.
 Ecen concebitu nintcen bekharutan luçunqui,
 Hetan gatçatu amaren sabelean higuinqui.
 Hala naicela neronec aithortcen dut eguia,
 Nola baita gauça çure bihotzac onersia.
 Eracutsi cinarotan ceronec gauça hori,
 Nola oraino asco bertce Mysterio ehortci.
 Graciaren hysopoaz othoi, busti naçaçu,
 Aurkhi nadin, Jauna, çure cerbitçatceco chahu.
 Elhurra baino naçaçu are-eguin churiago,
 Ene cerbitçuaz çure beguia agradatceco.
 Erantçun dieçadaçu othoi baquezco hitza,
 Barkhatu darotaçula osoqui neure hutsa.
 Ene beharriac dire orduan pagutuço,
 Orduan ene heçurrac bozcarioz jaucico.
 Aldara eçaçu ene faltetarie beguia.
 Eta chahu ene arima hequin nothez lohia.
 Ene baitan sor-araci çachu bihotz garbi bat.
 Eta ongui eguiteco bertce gogo berri bat.
 Ez naçaçula othoi-khasa çure beguitartetic,
 Ez eta aldara ceure amodio saindutic.
 Aiteitic dieçadaçu aleguera bihotza,
 Çeure graziez gogortcen duçula ene flaqueça.
 Gaixtoei daroet çure bidea irakhatsico,
 Eta nigarretan çure gana itçularacico.
 Arren bada, Jauna, barkha dietçadatçu hutsac,

Guciz odolezco eta haraguizco likhitsac.

Ordu hartan cantatuco ditu ene ahoac,
Bozcario handirequin, çure laudorioac.

Orduan othoi, idequi tçaquetçu iene ezpainac,
Çuri itçultceco ontasun haren esquer ordainac.

Baldin eçagurcen banu ecen sacrificioa,
Agradatcen litçaitçula abren odolezcoa.

Çure aldare sainduac nituzque gorrituco,
Eta asco bertce dohain çuri ofrendatuco.

Bainan Jauna, ongui daquit ecen halacoetan,
Etçaitçula hambat lakhet sacrificioetan.

Badaquit ecen çuc nahi duçun sacrificioa,
Dela bihorz damu eta urriqui handizcoa.

Halaco dohainic nihoiz ez duçu arbuyatcen,
Aitcitic hec guehienic çaiçquitçu agradatcen.

Eracuts dieçadaçu ceure mansotasuna,
Sioni çuc eraçutsi nahi darocoçuna.

Eta altcha çatçu ene ezperantça galduac;
Hala nola Jerusalem handiaren murruac.

Orduan tutçu hartuco sacrificioac,
Guciz ere obra saindu eta çucenezcoac.

Orduan çure aldaretan, esneco chahalchoac,
Eçarrico ditut eta iditto gastetchoac.

Loria Jainco Aitari, halaber Semeari,
Guero Izpiritu saindu consolatçaileari.

Hastean çuten beçala, bai eta orai ere,
Eta menderen menderetan dutela bethiere.

T R A T. *Domine non.*

Ez dieçaguçula Jauna, eguin gure bekhatuec mercei
duten beçala; eta ezgaitçatçula gaztiga gure gaixta-
cuerien arauera.

Ez orhoit Jauna, gure iragan hobenez, aiccin ber-
gaitçate ahalic lasterrena çure urricalmenducc, ecen
laceriaric handienera eroriac gare. O Jainco gure sal-

batçailea, hel çaquiquigu, eta libra gaitçatçu çure icenaren ohoretan. Urrical gaquizquitçu; eta çure icen saïnduaren amorea gatic, gure bekhatuac barkha dietçaquigutçu.

ANTIPHONA.

Galde deçagun nigar marrasquetan Jaïncoarean urricalmendua. Behera detçagun gure arimac haren aïtceinean. Deçagun aïthor haren meneco garela : Gauden izpiritu apha! eta beheratu batequin; othoïtz deçagun Jauna gure nigarretan, arren dieçagun sentiaraz bere urricalmendua, berari ongui çajon beçala. *Judith. 8. 14.*

Y. Eracuts guçu Jauna, çure urricalmendua.

R. Eta iguçu çure ganic dathorren salbamendua.

OTHOITZA.

Jaïnco guciz botheretsu eta ona, çure poblu egarrituari arrocatie ur bicizco ithurria soraraci dioçuna, athera çatçu gure bihotz gogorretarie urriqui min baten urac, eguin deçagunçat nigar gure hobenac gatic, eta ardiets çure urricalmendutic hequien barkhamendua, J. Christo gure Jaunaren bidez.

O Jaïnco ceñnaren urricalmenduac galdetcen baïtu eguin deçagun ahalaz penitencia, harkharcen dorozqui gutçun hobenentçat, libratcen gaitutçularie mereci dugun eta ecin deçaquegunetic, iguçu othoï, penitenciarene izpiritua eta barkhamenduaren gracia : Errequeritcen çaitugu, harçatçu gure penitencia, gure eguin-ahalac eta galdeac, onets çatçu çure saïnduen othoïtzac, eta on-iduc çure aphezec lurrean eguiten dutena gure escasaren bethegarri : Galde-guiten darotçugu Jesu-Christo gure Jaunaz : Hala-biz.

BIGARREN STACIONEA

CH E D E A C.

Othoitz eguiçu Elica saïnduaren gorapenarentçat ,
 borthitz eta beguira deçantçat Jaincoac baquean eta
 batasunean ; garaïtia eman dioçan enganio eta bicio
 gucien gaïnean. Eguiçu otho tz gure Aïta saïnduarent-
 çat , arren Jaincoac beguira , lagun , consola eta bida
 deçan fedearen thresor baliosarentçat hartcen dituen
 lanetan ; galde çachu Jaun - Aphezpicuarentçat , Izpiritu
 saïnduaren dohainen bethetasuna jauts dadin haren
 gainera.

JESUSEN ICEN SAINDUAREN LITANIAC

Jauna , urrical gaquizquitçu.
 Christo , urrical gaquizquitçu.
 Jauna , urrical gaquizquitçu.
 Jesus , adi gaitçatçu.
 Jesus , entçun gaitçatçu.
 Jaïncu Aïta ceruetacoa ,
 Seme munduaren Eros-çailea ,
 Jaïncu , Izpiritu saïndua ,
 Hirurtasun , Jaïncu bat çarena ,
 Jesus , Jaïncu biciaren semea ,
 Jesus , Aitaren distiadura ,
 Jesus , bethico arguiaren arguia ,
 Jesus , loriaco Erreguea ,
 Jesus , Justiciaren iguzquia ,
 Jesus , Virgina Mariaren semea ,
 Jesus , ederets garria ,

Urrical gaquizquitçu.

Jesus , Jainco borthitza ,
 Jesus , dathorren mendearen Aita ,
 Jesus , conseilu handico Ainguerua ,
 Jesus , guciz botheretsua ,
 Jesus , guciz obediencia ,
 Jesus , guciz pairacorra ,
 Jesus , emea eta bihotz aphala ,
 Jesus , garbitasunaren maitatçailea ,
 Jesus , gure maitatçailea ,
 Jesus , baquearen Jaincoa ,
 Jesus , bicitcearen sor-çailea ,
 Jesus , berthutezco miraila ,
 Jesus , arimen kharra duçuna ,
 Jesus , gure Jaun-goicoa ,
 Jesus , gure ihes-lekhua ,
 Jesus , beharquicunen Aita ,
 Jesus , Christauen Thresora ,
 Jesus , Artçain ona ,
 Jesus , eguiazco arguia ,
 Jesus , çuhurtcia bethicoa ,
 Jesus , ontasun mugarri gabea ,
 Jesus , gure bide eta bicia ,
 Jesus , Aingueruen bozcarioa ,
 Jesus , Apostoluen Nausia ,
 Jesus , Evangelisten dotora ,
 Jesus , Martyren indarra ;
 Jesus , Confesoren arguia ,
 Jesus , Virginen chahutasuna ,
 Jesus , Saindu gucien khoroa ,
 Çaren gure aldera urricalmendutsu , Jesus , barkha
 dieçaguçu ,
 Çaren gure aldera urricalmendutsu , Jesus , entçun
 gaitçatçu ,

Urrical gazuizquitçu.

Urrical gazuizquitçu.

Gaitz guciataric .

Bekhatu guciataric ,

Çure aserrecoitic ,

Debruaren trampetatic ,

Lohiqueriaco izpiritutic ,

Bethico heriotcetic ,

Çure gogoramenduez contu ez eguitetic ,

Çure guiçon eguite saïnduco Mysterioaren ariaz ,

Çure sortcearen ariaz ,

Çure Haurtasunaren ariaz ,

Çure Bicitce guciz Jaïncozcoaren aria ,

Çure nekhen ariaz ,

Çure Hagonia eta Païramenaren ariaz ,

Çure Gurutce eta Aïtac utztearen ariaz ,

Çure Hersturaren ariaz ,

Çure Heriotce eta ehorztearen ariaz ,

Çure Bitztearen ariaz ,

Çure cerura igatearen ariaz ,

Çure Bozcarioen ariaz ,

Çure Loriaren ariaz ,

Jaïncoaren Bildots , munduco bekhatuac khentcen
ditutçun Jesus , Barkha dieçaguçu.

Jaïncoaren Bildots , munduco bekhatuac khentcen
ditutçun Jesus , entçun gaitçatçu.

Jaïncoaren Bildots , munduco bekhatuac khentcen
ditutçun Jesus , urricai gaquizquitçu.

Jesus , adi gaitçatçu ; Jesus entçun gaitçatçu.

OTHOITZA.

Jesu-Christo gure Jauna , ceïnac erran baituçu galde
çaçue , eta içanen duçue ; bilha çaçue , eta edirenen
duçue athea jo çaçue , eta idequcio caitçue ; isur-aç
gure gainera çure amodio Jaïncoscoaren eztitasun go-
çoa , maïta çaitçaguntçat gure bihotz guciatz , gure

solhas eta lan gucietan , eta nihoiz bara ez gaitecen
 çure icen sainduaren laudatcetic.

OTHOITZAC

*Eliçarentçat , Aïta sainduarentçat , eta Jaun aphezpi-
 cuarençat.*

PSAL. 79. *Qui regis...*

Çaude erne Israelen gobernari handia ,
 Ardi-antcho bat beçala , Josephen bidaria.

O çu jarria çarena kherubinen gaïnean ,
 Çato , Ephraim , Benjamin , Manasen aïtcinean.

Erne çau de othoï , çure nausitasun gucian ,
 Çatozquigu salbatcera çure grina handian.

Çure gana beraz Jauna , arren itçul gaïtçatçu ,
 Çure bekhoqui ezia aguer dieçaguçu.

Orduan biztuko duçu çureen esperança ,
 Ordutic salbo garela duquegu segurança.

Jaïnco botheretsu beçain handizqui asarrea ,
 Noïz-daino arbutatuco duçu galde gurea ?

Noïz-daïno janaracico nigarrezco oguia ,
 Daucuçu harraracico auhenen edaria ?

Gure hançoen herrara çuc gaïtutçu pharatu ,
 Burlatu gaituzte eta gaixtoqui idoïztatu.

Jaïnco handia , çu gana arren itçul gaïtçatçu ,
 Salbo gare , bekhoquia aguertcen badaucuçu.

Egiptotic mahatstia duçu çuc atheratu ,
 Nacioac khasaturic , hequin baïtan landatu.

Israëlec çu bidean cintuen gobernari ,
 Bere lagun arthos eta bere aïtcin bidari.

Haren erroac ceronec ditutçu birlandatu ,
 Eta gora altchaturic , lur gucia bethe du.

Bere itçalaz estali ditu mendi gorenac ,

Çuhaitzic chumenac chitu cedro Jaincoarenac.

Hedatu bere adarrac itsas çabaleraïno,
Eta bere urthumeac ibaia handiraïno.

Certaco arthiqui duçu haren harri-hesia,
Içateco bideantez larrutua gucia.

Basurde bat ethorriric, osoqui du deseguin,
Bestia odoltsu barec han bere bazca eguin.

Jaun-goico botheretsua, hel, hel, gu laguntcera,
Cerutic beha mahatsti çurearen gainera.

Erreberri çachu ceorc bakharric landatua,
Çuc ceronec, çure escuz, bethi arthaztatua.

Guiçonaren semeari cerutic beha çoçu,
Ecen çure loriacotz cinduen indarztatu.

Erre dute mahatstia, atheraz errotaric,
Bainan çure beltçuriac galduco tu lasterric.

Lagun çachu othoi, çure escuinaren guiçona,
Çure ohoratcecotçat indarztatu duçuna.

Ez gare gu çure ganic gaurgoro urrunduco,
Çue bitzturic, çure dugu icena othoitztuc.

Armadetaco Jaincoa, çue gambia gaitçatçu,
Bekhoquia aguerturic, salbatuco gaitutçu.

Loria Jainco Aitari; etc.

Antiphona.

Nic çuri erraten darotçut Piarres çarela, eta harri
horren gainea altchatuco dudala ene Eliça; eta ifer-
nuco atheac ecin hari garaituco caizcola.

ψ. Gracia eta baquea eman bequizco Jaincoaren
Eliçari. ϣ. Bai eta J. Christoren icen saindua, toqui
orotan othoizten duten guciei.

Othoïtza. Eliçarentçat.

Error çaitte, Jauna, çure Eliçaren othoitz etara,
arren bada, atsecabe eta enganio gucietaricgarai

ilkhiric, cerbitça çaitçan libertate oso eta bethe batequin.

Aita Saïnduarençat.

O Jainco, Christan gucien artçain eta bidaria, begui amultsu batequin beha dioçoçu çure Eliçaren buruçagui içan dadin nahi içan duçun Pio, çure cerbitçariari; çure graciaz eguiçu, haren hitzac eta exemplua probetchosac içan daquizcoten haren azpico guciei, fidatua cajon arthaldearequin, hel dadintçat bethiereco bicitcera.

Jaun Aphezpicuarençat.

Emoçu, Jauna, çure cerbitçari Joseph - Jacobe, arthalde hunen artçaintçat bereci duçunari, conseiluzco eta indarrezco Izpiritua, jaquintasun eta Jaincotiartasunaren Izpiritua, arren bada Aphezpicuaren gobernu onac emendaraz deçan guerora guehiago Christauen Jainco-prestutasuna, eta arthaldearen salbamenduac eguin deçan artçainaren bozcarioa eta khoroa.

Andre Dona Mariaren arartecotasunarentçat.

Jaun-goicoaren Ama saïndua, çure laguntçara hel eguiten dugu. Ez detçatçula arbuya gure beharretan eguiten darozquitçugun galdeac; aiticitic, Virgina loriosa eta benedicatua, beguira gaitçatçu bethi bentura gaixto gucietaric.

Y. Jaincoaren Ama dohatsua, guretçat othoitz eguiçu;

R. Gai bihur gaitecençat J. Christoc aguindu fagoreen içateco.

Othoitzza.

Jainco guciz urricalmendutsu çarena, borthitz çachu gure herbaltasuna; eta nola Jaincoaren ama dohatsuaaren orhoitçapena ohoratcen baitugu, eguiçu athera

gaiten gure bekhatuetaric, haren arartecotasunaren laguntzarequin, J. Christo gure Jaun beraz. Amen.

HIRUR-GARREN STACIONEA.

C H E D E A.

Othoitz eguiçu Franciarentzat eta gobernamentuarentzat : Jaincoac gueriça deçan Emperadorearen Majestatea bere laguntzaz, ecin cilhatuzco erredola batez beçala; isur deçan bere çuhurtcia haren conseilu gucien gainera; eman dioçoten cargutan direnei çucentasuna; indarra eta garaitia armadei; pobluari nekhen arintasuna eta çoriona; urrunduric guerlaren cigorrada, eta fincaturic baque iraupenezco baten gainean Erreligionaren indar eta nausitasuna.

ANDRE DONA - MARIAREN LITANIAC.

Jauna, urrical gaquizquitçu.
 Christo, urrical gaquizquitçu.
 Jauna, urrical gaquizquitçu.
 Chsisto, adi gaitçatçu.
 Christo, entçun gaitçatçu.
 Jainco Aïta ceruetacoa,
 Seme, munduaren Eros-çailea,
 Jainco Izpiritu saïndua,
 Hirurtasun Jainco bat çarena,
 Maria saïndua, gutaz othoitz eguiçu.
 Jaincoaren Ama saïndua,
 Virginen Virgina saïndua,
 Jesu-Christoren Ama,
 Jaincoaren graciaren Ama,

Urrical gaquizquitçu.

Ame

Gutaz ohoitz eguigu.

Gutaz ohoitz eguigu.

Ama guciz chahua,
 Ama guciz garbia,
 Ama huts eguin gabea,
 Ama notha gabecoa,
 Ama maïtatcecoa,
 Ama ederets-garria,
 Creatçailearen Ama,
 Salbatçailearen Ama,
 Virgina guciz beguiratua,
 Virgina ohoratcecoa,
 Virgina lauda garria,
 Virgina ahal handitacoa,
 Virgina mansoa,
 Virgina leihala,
 Saïndutasunaren Miraïla,
 Çuhurciaren Cadira,
 Gure bozcarioaren Ithurburua,
 Untci izpirituala,
 Ohorezco Untcia,
 Prestutasun bereciaren Untcia,
 Arroza mysteriozco, eta urrin onetacoa,
 Daviden Dorre borthitza,
 Boricazco Dorre ecin çaurthua,
 Urrezco Etche caritatearena,
 Acorduaren Arca,
 Ceruco Athea,
 Artiçar goztiarra,
 Erien Osasuna,
 Bekhatoreen Ihes-toquia,
 Penatuen Consola-çaillea,
 Christauen Fagorea,
 Aïnguerven Erreguina,
 Patriarkhen Erreguina,

Propheten Erreguina,
 Apostoluen Erreguina,
 Martyren Erreguina,
 Confesoren Erreguina,
 Virginen Erreguina,
 Saïndu gucien Erreguina,
 Jaincoaren Bildots, munduaren bekhatuen khençaïlea,
 Jauna, barkha dieçaguçu.
 Jaincoaren Bildots, mundnaren bekhatuen khença lea,
 Jauna, Entçun gaitçatçu.
 Jaincoaren Bildots, munduaren bekhatuen khençaïlea,
 urrical gaquizquitçu.
 Christo, adi gaitçatçu; Christo, entçun gaitçatçu.

ANTIPHONA. *Sub tuum....*

Jaun-goïcoaren Ama saïndua, çure laguntçara laster
 eguiten dugu. Ez detçatçula arbuya gure beharretan
 eguiten darozquitçugun galdeac; aïcitic, Virgina lo-
 riosa eta benedicatua, beguira gaitçatçu bethi bentura
 gaixto guciataric.

Y. Jaincoaren Ama dohatsua, gñretçat othoitz eguiçu.

R. Gaï bihur gaitcentçat J. Christoc aguindu fago-
 ren içateco.

OTH OITZA.

Jainco guciz urricalmendutsu çarena, borthitz çaçu
 gure herbaltasuna; eta nola Jaincoaren Ama dohat-
 suaren orhoitçapena ohoratcen baitugu, eguiçu athera
 gaiten gure herkbatuetic, haren arartecotasunaren
 laguntçarequin, J. Christo gure Jaun beraz.

PSAL. 90. *Qui habitat....*

Jaun gorenaren nor bici baita amodioan,
 Jabe onaren bici da hura gomendioan.

Holacoac erran ahal dioçoque Jaunari,
 Ecin daquiquejonean itçur gaitz hurbilari.

O Jaun-goïco botheretsu, ene beguiraïlea,

Cu țăitut lastiman ihes eguitemo dorea.

Çure baïtan guciz neure eman dut esperantça ;
Çuc dieçadaçu othoï , guibela ene gaitça.

Bere othoïrza eguinen ez dioque alferric ,
Ecen harc beguiratuco du gaitz gucietaric.

Beguiratuco du hequin enganioetaric ,
Eta hequien mehatchu eta hitz aspretaric.

Itçalduco du sorbalda handi eta çabalez.
Baï gueriçatuco bere fagorezco hegalez.

Etredola gogorraz du hura inguratuco ,
Eta icialduratic ganaz beguiratuco.

Halaber du guardatuco calte agueritaric ,
Aïretic heldu den nola nola gueci ustecaberic.

Beguiratuco du plaga eta ondicotaric ,
Estai ichilec armatcen diotçoteneraric.

Gueriçatuco oraïno asarre borthitçetic ,
Eguerdian dabilan deabruarenetic.

Segur beguiratuco du etsai gucietaric ,
Calteric ez dioçoten eguin eta-ez damuric.

Hala haren inguruan hil arren hamar mila ,
Haren alderaiïno ez da hurbilduco perila.

Baïnan beguiz icusico du jaïncoac bengantça
Eguiten duela haren etsaietan garratça.

Ceren haren baïtan duen esperantça eçarri ,
Eta ceren haren gana ihesi den ethorri.

Haren gana ez da plaga gaitxoric ethorrico ,
Ez eta haren etchera calteric erorico.

Bere Aïnguernac çeren baïtitu manaturen ,
Joan-ethorri gucietan ongui guarda deçaten.

Bere-escuetan jasanen dute bide gaitzeran ,
Behatztopa ez dadintçat lureco harrietan.

Suguearan gaïnean du emanen bere oina ,
Baï eta osticatuco lehoï eta dragoïna.

Guciarequien ez du min garabic hartuco,
Cergatic Jaun onac baitu caltetic guardatuco.

Ceren haren baitan eman duen bere-esperantça,
Eta ceren haren duen içatu eçagutça.

Premian baldin badio hari oihu eguiten,
Haren aihen tristea du berehala entçunen.

Aldean hurbil içanen du berē doloretan,
Hetaric atheratuco du ephe laburretan.

Emanen dio ohore eta cargu munduan,
Baita fagore eguinen behar duen orduan.

Bere egunac diotço lurrean luçatuco,
Eta ceruan bekhoqui clara eracutsico.

Loria, etc.

P S A L. 45. *Deus noster.....*

Gure ihestoqui eta indarra da Jaincoa,
Gure atsecabcetan lagun-çatle sendoa.

Ikharra dadin lur bera, ez gare-ikharatuco,
Fundi-itsasoan mendiac, ez gare cantituco.

Hunen uhin asarreac gora dire altchatu,
Mendien cimendu berac ikharaz khordocatu.

Ibaï goço batec bethe du Jaunaren hiria,
Guciz gorac du garbitu bere egon-toquia.

Jaun-goïcoa barnean du, ez da ikharatuco,
Goiz-goicetic haren lagun bera da aguertuco.

Etsai ostea heldurrez khordocan da jarria,
Lurra, Jaunaren oihuan, dago triste, larria.

Armadetaco Jaincoa gure artean dugu,
Jacoben Jaun indartsuac nahi gairu lagundu.

Çatozte, icus-atçue Jaun-goïcoaren lanac,
Munduan haren besoac obratu dituenac.

Baratu darocu guerla mundu herri gucian,
Gaitcerizcoac emanic bere oimen bazpian.

Arbaletac porroscatu tu, bere gueciequin,
Erredolac berac erre burdin-guerruntçeequin.

Çatozte , icus-açue naizela ni Jaun-goïco ,
Ni lurreco jendaquiec naute bai laudatuco.

Armadetaco Jaïncoa segur gurequin dugu ,
Jacoben jaun indartsuac lagun du nahi gaitu.

Loria , etc.

Francesen EMPERADOREAREN ÇAT othoïtza

Y. Jauna , salba çachu Francia.

R. Eta entçun gaitçatçu othoïztuco çaitugunean.

Y. Jauna , salba çachu Napoleon gure Emperadorea.

R. Eta entçun gaitçatçu othoïztuco çaitugunean.

Y. Loria Aïtari , eta Semeari , eta Izpîritu saïnduari.

R. Hastean cen beçala , egun eta menden mende gu-
cietan , Halabiz.

O T H O I T Z A.

O Jaïnco , Erresuma gucien eta bereciqui Franciaco
Imperioaren indarra eta harroïna , emoçu çure cerbit-
çari Napoleon gure Emperadoreari gracia , çuhurtcia-
requin erabiltceco çure indarraren garaïtia , bethi be-
guira deçantçat çure dohaïne , çure ganic içan duen
botherea , Jesu-Christo gure Jaunaz....

O Jaïnco , guticia saïnduen , gogoeta onen eta eguïntça
çucenen ethorquia , emoçute çure cerbitçarïei munduac
ecin eman deçaquen baque hura , gure bihorzac içan
deïtecen çure manuetara eroriac , eta etsaïen guchiago
beldurric gabe , ereman deçagun çure dohaïne , baquezco
bicitce bat , J. Christo gure Jaunaz.....

JUBILAUAREN HERSTEA EDO CERRATCEA.

C H E D E A C.

Emotçu Jaïncoari esquer on eta khartsuac Erreli-
gionea Francian , bere leheneco pontura ethortcearent-
çat , dohaïn balios , haïn naharo eta ugariqui , Jubi-

lauaren bidez , gure gainera isurientzat ; galde-guioçu,
hartu dirutçun deliberacione onetan irauteco eta hequin
leihalqui bethetceco gracia.

PSAL. 102. *Benedic....*

Benedica , ene-arima , eçac hire Jaincoa ,
Ene baitan den guciac bemo laudorioa.

Benedica , ene-arima , hire nausi goicoa ,
Beguir a hantzi hire ongui-guile francoa.

Harc barkhatcen ditic hire hobenic handienac ,
Gauça bera ditic hire sendatcen erhasunac.

Harc die urrun hire ganic herioa hasantcen ,
Bethi çaic , gau eta egun , bethi bai urricaltcen.

Hire nahi gucien duc gaïndiz bethetcen hari ,
Hi gazterceraïnocoan , arranoa iduri.

Gure Jaincoa da guciz bihotz-beretacoa ,
Handizqui du urricari penetan den gachoa.

Çucena dio ematen mereci duenari ,
Eta bereciqui-idoïac jasaten tuenari.

Jaquintsun eguin du Moïse bere legue saïnduez.
Israelgo haurrac ere bere manamenduez.

Jaun-goicoa da osoqui urricalmendutsua ,
Hobendunentzat berauncor , osoqui païrutsua.

Ez da bethicotzat herran asarre dagoena ,
Aïtcitic bai dichidutan baratcen daquiëna.

Ez gaïtu ez gaztigatu hobenen arauera ,
Bainan hobequi behatu bere-urricalmendura.

Cembatez ceru urdina lurretic da gorago.
Hambatez beldur çajona du urricariago.

Iguzqui sortcea çoin da urrun etçan aldetic ,
Haïn urrun hobenac ditu khendu gure-arimatic.

Jainco-beldurtiac çazco osoqui urricaltcen ,
Aïta bat ume onentzat nola baita aguertcen.

Berac haïnitz ongui daqui buztinozco garela ,

Gure içate gucia hauts eta herrauts dela.

Gure-egun aphurrac dire belarraren iduri,
Nola goizean lore bat sorhoan baita agueri.

Uqui beça aire batec laster da suntsituco,
Eman duen lurrac ez du non den eçagutuco.

Jaïncoari çaizco hethi eta bethi-urricaltcen,
Haren beldurrean bici direnac tu maïtatcen.

Guciz da Jauna çucena haurren haurretaraïno,
Haren patu-eta manuac bethetcen dituzteïno.

Ceruan du fincarua Jaunac bere alkhia,
Handic du aguertcen dela munduaren nausia.

Çuec ò A ngueru haren leihal cortesanoac,
Mandatari-indarsu beçaïn erne-eta agudoac.

Benedica gure Jauna çuen copla saïndutan,
Organo, alboca eta chirribica soïnutan.

Benedica, gau eta-egun, ceruco Bothereac,
Erreguen Erreguearen meçuen eguileac.

Çuec ere mihi gabe eguin içan çaïtenac,
Emotçue laudorio ahal ditutçuenac.

Benedica, ene-arima, munduaren Jabea,
Lauda toqui gucietan, gucien eguilea.

Loria, etc.

AVE, MARIS STELLA.

A rea, *Canta çagun gogotic, etc.*

Agur, ò itsasoco Içar distianta,
Ja nco Jaunaren Ama on eta puchanta,
Agur, bethi Virgina, notharic gabea;
Agur, ò dohatsuzco ceruco athea.

Sumens illud Ave...

Gabrielen agurra cinduen miretsi,
Eman çautçun berria guciz ederetsi;
Agur bera har çachu çure haurren ganic,
Gure ama çaïtugu deïtcen oraï danic.

Evac çuen munduan sarthu bekhatua,
 Sinhetsiric arinqui sugue-amarrutsua;
 Çuc, ordaînez baquea, othoi, emaguçu,
 Çorion hori gure baitan finca çaçu.

Solve Vincla reis....

Hauts çatçu gure hoben handien gatheac,
 Ecen laïdotsu beçaîn çaizquigu dorpheac,
 Ilhunbetan jarriac, çuc argui gaitçatçu,
 Herioaren itçal beltza urrun guçu.

Ondicopean gaude, galduac beçala;
 Nola itçur bideric ez tacusagula:
 Çuc, Ama ona, suntsi-araz çatçu gaitzac,
 Ongui guciez bethe çure-umen bihotzac.

Monstra te esse Matrem.....

Aguer çaite çarela Jaïncoaren Ama,
 Haren aserradura othoi çaçu ema:
 Entçunen tu galdeac bere Amarenac,
 Çure ganic sortcea onetsi duenac.

Virgo singularis....

Virgina pare-gabe eta berecia,
 Eztitasun gucien ithurri bicia,
 Gure hobenetaric çuc libra gaitçatçu,
 Içan goïtecen ezti, bai garbi eguiçu.

Vitam præsta puram.....

Balia çaquizquigu hemen ararteco,
 Saïnduqui bici eta saïnduqui hiltceco:
 Bekhoz-bekho deçagun Jesu-Christo icus,
 Dohatsuequin bethi atseguinac hartuz.

Sit Laus Deo Patri....

Laudorio emogun Aïta Jaïncoari,
 Ohore handiena Jaïnco Semeari;
 Izpiritu saïndua deçagun adora,
 Aïta Semequin dena Jaïnco Jaun bat bera. Hala-biz.

Y. Benedica eșac, ene arima, hire Jaîncoa;
 R. Ene baïtan den guciac bemo laudorioa.
 Y. Jaîncoaren Ama dohatsua, gutaz othoïtz eguiçu;
 R. Gaï bihur gaitecentçat Jesu-Christoc aguindu fa-
 goren içateco.

O T H O I T Z A.

Jaun-goïco Jauna, eguiguçu çure cerbitçariëi arima-
 ren eta gorphutzaren osasunaz goçatceco fagorea, eta
 Ama Virginaren othoïtzetara, oraïco tristeciatic libra-
 turic, bethiereco bozcarioaz halaber goçatcecoa; Jesu-
 Christo gure Jaun eta çure Seme, çurequin eta Iz-
 piritu saïnduarequin; bethi bici eta aguïntcen duenaren
 merecietara; Halaz-biz.

T E D E U M....

Çu, çaitugu Jaun-goïcoa, bihotz osoz laudatcen,
 Çu mundu hedatuaren jabetçat eçagutcen.

Aïta bethierecoa ceren baïçare segur,
 Handic eguiten darotçu lurrac ohorez agur.

Çuri bethi dagozquitçu cantaz Archanjeluac,
 Kherubinac, Seraphinac, baï halaber Tronuac.

Saïndu, Saïndu, Saïndu, çare, ò armaden Jaîncoa,
 Hala çare nitaz ere bethi laudatcecoa.

Çure loriaz betheric gora daudez ceruac,
 Lurrean ere baïtutçu Sendagaïlen cantuac.

Apostoluen khoroa çure hari laudatcen,
 Propheta saïnduac ere hec dituzte laguntcen.

Oraïno Martyren ere armada distiantac,
 Bozcarioz darabiltça çure lorien cantac.

Munduaren bazterrera Eliça da hedatcen,
 Cembat ere baïta handi, harc çaitu çu laudatcen.

Majestäte handiz Aita bethi çare bethea,
Orobat duçu loria haren Seme maïtea.

Bardin çaitugu laudatcen, Izpiritu saïndua,
Tristeen consolatçaile bethi icendatua.

Loriaren Erreguetçat çaitugu, Christo hartcen,
Aïtaren bethico Seme çarela eçagutcen.

Guiçonaren libratceco cinenean guiçõdu,
Virgina baten sahela etcitçaitçun higuïndu.

Çuc, garaïturic herio larza atrebituqui,
Christauei ceruco-athea cinaroen idequi.

Aita haste gabearen loria bardinean,
Çu çacusagu jarria escuïneco aldean.

Eta dugu sinhetstea, mundua-akhabatcean,
Jujatcera ethorrico çarela hedoïean.

Çuc beraz, othoï, fagora çatçu cerbitçariac,
Hambat nekherequisite çure odolaz erosiac.

Eta golarda gaitçatçu, escu bethez sariaz,
Çure saïnduen artean bethiere loriaz.

Caltetic gueriça çachu çure poblu maïtea,
Eta benedica çure primeçaco jendea.

Çuc, othoï, governa çachu, çuc mantena ohorez,
Bethi gaïndiz çachu bethe dohain eta fagorez.

Iguzquiac ez du egun-bateretan arguitcen,
Non ez çaren ohorezqui gure-ahotan aïphatcen.

Çure-Icena laudatcen da, eta-eguinen seculan,
Hatsa arthiq deçaguino, bici garen toquitan.

Jainco ona, içan çaitte gaur othoï, gure habe,
Eguna-iragan deçagun, çu damuztatu gabe.

Duçun, arren, urricari çure jende gachoa,
Ecen lastimatcecoa da haren ondicoa.

Esperantça handia dut hala-eguinen duçula,
Eta-ahalqueac hartcera utzico ez nauçula.

¶ Benedicatua çare gure arbasoen Jainco Jauna;

R. Bethiere ditutçu mereci laudorio eta loria;

Y. Entçun eçaçu, Jauna, ene othoïtza;

R. Eta ene oïhuac igan beïtez çure gana.

OTHOITZA.

Jaïnco, urricalmenduz eta bihotz-ontasunez, neurri gabe, aberets çarena, esquerrac darozquitçugu çure samurtasunac eguin darozquigun dohaïneze, othoïzten ça tugaric, gu ahantzetic urrun, bethico golardoe-tara prepara gaïtatçun.

O Jaïnco, Izpiritu saïnduaren arguiaz, Christauen bihotzac iracatsi ditutçuna, iguçu Izpiritu saïndu hura, gusta eta maïtaraz dieçaguntçar onguia, eta isur deçan gure gaïnera bere goço eta consolacionea; Jesu-Christo gure Jaunaz, etc. Hela-biz.

JUBILAU DEMBORAN,

*Jaïncoari eguin behar çaiçcon galden
Bilduma laburra.*

 OTHOITZA.

JAINGO guciz botheretsua, igutçu Eliçac, Jubilau dembora saïndu huntan, Escatcen dauzquitçun gracia ugari eta gaïndizcoac. Ontçat harçaçu ceruan, gure Aïta saïnduac lurrean ematen darocun perdunantça osoa. Emotçu çure benedicioneac, arren çuhurciarequin eta çure legue saïnduen arauera, bida eta governa deçan, haren grinaren azpian utzi duçun arthaldea. Emoçute çure gracia, hura Eliçan laguntcen duten arçain gucieï. Argui çachu bereganqui gure Aphezpicu errespetagarria, eta eguiçu mereci deçagun, gure arimen saïndutceco errea den kharraz probetchatcea.

Benedica eta beguira çachu Gobernamentuco buruçagui nausia. Bethe çatçu gure legue saïnduarentçaticaco errespetuz, çuretçat beldurtasunez eta amodioz, hura Franciaren governuan, laguntcen duten guciac. Urrun çachu gure ganic guerlaren açote garratza; baque çatçu elkharren artean etsaï diren pobluac. Finca çachu ecin khordocatuzco cimenduen gaïnean, gure arbasoen Erreligionea. Eguiçu, Jauna, Eliça,

çure esposa boz dadin ardietsi pausu eta baquean, Bildetçan munduco nacio guciac bere caritatezco hegalen azpirá ; çure icena saïnduqui erabilia içan daintçat, ceruan den beçala lurrean ere. Akhaba çatçur heresia hec, ceï nec, beguiratcera eman dioçun eguia eta fedea, guducatcen eta nahasten baïtute. Suntsi çatçu Jauna, arthaldea bere artçaïnetaric hasantcen dituzten schismac. Akhaba çatçu, Jauna, Christauac elkharren artean makhurtcen dituzten liscar eta ihar-duquitceac, arren bada, çu, batasunezco izpiritu eta bihotz batez, leihalqui cerbitçatu ondoan, goça çaitçagun ceruan, gure bethico golardoa beçala. Amen.

Fedezco Acta.

Sinhetsten ditut, ene Jaïncoa, cinez eta tinqi, Eliça - ama saïnduaz sinhetsteco ematen darozquidatçun eguia guciac, ceren çuc hari içan diren irak-hatsiac.

Esperantçazco Acta.

Ene Jaïncoa, esperantça dut çure bihotz - ontasunetic bethiereco bicircea, eta hara heltceco behar ditudan laguntça guciac ; ceren çuc aguindu baïtarozquidatçu, çu baïtçare gucz ona eta çure hitzaren atchiquitceco leihal eta botheretsua.

Amodiozco Acta.

Ene Jaïncoa, maïte çaitut ene bihotz guciac eta gauça gucien gaïnetic, ceren çu baïtçare osoqui maïtagarria eta ahala perfeta ; Maïte dut halaber ene laguna, ene burua beçala, çure amorea gatic.

Contricionezco Acta.

Ene Jaincoa; ez naiz gai ene bekhatu handien gatic, ez choilqui çu ene-ganatceco, ez eta ere çure Majestate adora garriaren aitecinean aguertceco. O mugarriric ez duçun ontasuna, urriqui min bat dut ceren damuztatu caitudan. Eguidaçu gracia, lehenago hiltceco, çuri berriz damuric eguinen dautçudan baino. Hala-biz,

EZTA CEREN BEKHAIZCORIC

IÇAN COSTATARRENTÇAT,

ECEN MINTÇO GUIRA BARDIN

ESCALDUN ORORENTÇAT.



